

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXVI Zenbakia.

1994

Urtarrilla - Epaila

AURKIBIDEA

Orr.

Ikusi, irakurri ta entzuten diranak. (Barruko azalean).

Lauaxeta Olerkaria. - Zubiri tar Iñaki.	1
Zubiri tar Iñaki'ren itzaldiari erantzuna. - Olazar tar Martin.	19
Goi-Yakintza. Sorkaridia. - Urrestarazu tar Andoni.	21
"Umandi"ren Oroitzapenetan. - Exea tar Yosu.	24
Erri euzkeraren azterketa. - Arzelus tar Amale.	26
Jose Ventura de Landa, idazle eta Deba'ko Parroko. - Arrinda tar Anes.	34
Unamuno eta Euskeraren eriotza. - Arrinda tar Anes.	37
Urrestarazu tar Andoni (Umandi). - Mendia-Olazar.	39
Euskal izenak erdiaroko idazkeran. - Latiegi tar Bixente.	42
Iztueta'ren langintza iztegiak. - Goikoetxea tar J.	51
Santa Ageda aintzinako Bizkaiko eran. - Legarreta tar Asier.	56
Azkoiti'ko parrokiak zenbait berri. - Albisu tar Anes.	58
Liburu berriak.	64
Biozkadak. - Aurre tar Anton. (Atzeko azal barruan).	
Erriaren esaldi jatorrak. - Oñatibia tar Manu. (Atzeko azalean).	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA

C. LARREATEGI 14 - BILBAO

IKUSI, IRAKURRI ETA ENTZUTEN DIRANAK

Gasteisko denda baten, goiz eta arratsaldeko orduak iragarteko:
Goiz 8,30 Berandu 4,30

Eguraldia gaur elegantea, Ñaturala ta Şanoa izan da. (E.T.B.)

Administrazioaren erreformak egiteko kontsentsuaren bearrizana. (E.T.B.)

Euneko zero koma iru. (E.T.B.) * * *

Sindikatoak eta patronalak. * * *

Instituto Politikoa. * * *

Errezibimiento ofiziala. * * *

Mobilizazio kanpaina. * * *

Temperatura freskua.

Kurtsoen programazioa.

Guardia municipala. * * *

Espazio propioa. * * *

Euskal Herriaren sententzia: Ejerzitoari desobedientzia.

Kontzientzia eragozpen mugimendua. * * *

Mota pasiboak (Clases pasivas) Donostiko Hacienda.

Dekretukada. (Decretazo). * * *

Gaua zurekin pasatzeko desiratzen daude. (Duplex, ETB 1. Iragarkia)

Lur zoruaren Eregimena eta Ordenazio urbanoaren...

Kooperazio sistema...

Gestio Urbanistikoaren Araudiko...


Grabamen urbanistikoaren kantzeldazio egunak...

(Elgetako Udala, 1994-ko Urtarrillaren 10-ko Iragarkia.)

Gipuzkoako
Aldundia



Eusko Jaurlaritza



Laguntzaileak



Bizkaiko
Foru
Aldundia

Diputación
Foral
de Bizkaia

LAUAXETA OLERKARIA

Lauaxeta (Urkiaga ta Basarazitar Estepan) Bizkai'ko Laukinitz'en jaiou zan 1905 urteko dagonilla'ren 5'gnean, Erriko Taberna deritxan etxean. Aita, Jose Marj Urkiaga aulestiarra, Laukinitz'ko alaba zan Bizenta Basaraz'ekin ezkondu zan, eta alkarte onen ondorioz, zazpi seme-alabak (lau mutil ta iru neskatilla) izan ebazan. Gaztetxua zala, Estepan'en sendia Mungi'ra aldatu zan, eta emen Lamenetarrek zuzendurjko eskolan ikasten asi zan.

Mutikoa zala, lekaide joan gura izan eban, baiña Lekeition abade ziarduan osaba Franzisko'k abadetzeko esan eutsan, eta gure Estepan esanekoa, Durango'ko Yosulagunetara sartu zan, emen, abade ta lekaide izateko mutillak gertatzen ziran-eta.

Amairu urteko zan Durango'ko ikastetxera sartu zanean, eta amasei urteko izanik, yosulaguna billakatzea erabagirik, Loiola'ra lekaidegaitzat sartu zan. 1923 urtean ziñitzak egiñik, jarraitzen dau erdal klasikoak, giza-elerti orokorra, izlaritza, giza-ikaskizunak ta abarrai emonda. Jakintzarako egarri biziak artuta, aspaldi luze onetan, idazle ta olerkari izateko bideak ikasi ebazan, eta olerki-senaren doiaz bete izanik, gora egiteko eragiña aurkitu eban, eta olerki-gintzan bere edertasun-irrikak asazkapen betea izan eban.

Egun baten, berak eta beste lagun batzuk Loiola'ko liburutegian Aita Ibero'ren "A mi Vasco" irakurteko aukerea izan eben, eta alkarrekin adoretuta, beste adiskideekin abertzale billakatu zan. Abertzaletasun onek, euskerarekjko maitasuna piztu eutsan, eta onen ondorioz, euskal-arloan sakonduz, lanean asi zan, eta oartu orduko olerkaritzaren grjñak artuta olerkari biurtu zan.

1926 urtean, beste lagunekin Oña'ra aldatu izan zan ikasketak biribiltzeko. Emen urtebete bi emon ebazan Lauaxeta'k, benetako gertakizun sakona egiñez. Orduko, abertzale ta euskaltzale sutua billakatu izan zan, eta Yosuren Biotzaren Deia'n eta Jaungoiko Zale'n aldizkarietan bere olerkiak argitaratzen asi zan.

1928 urtean yosulagunaren ikasketai uko egiñik, etxera biurtu zan, eta gudaritza-aldia egin bitartean "Euzkadi" izparringian idazten asten da. Egunkari onetako "Euzkel Atala" izeneko arloa erabillen "Orjxe" Orexa'ra baztertu zan "Euskaldunak" izeneko euskal poema gertatzearren, eta Lauaxeta'k arlo onen ardurea artu eban 1931'tik 1936'rarte. Lan andi ta txalogarria burutu eban betekizun onetan. Asko idatzi eban euskeraz eta erderaz, bai itz-lauz bai itz-neurtuz, "Temas Vascos" eta "Egunekua" sailletan, gero "Azalpenak" eta azkenik "Izkiñuak"enean umeaj eskiñita.

1930 urtean, Errenderi'ko lenengo olerki-leiaketan saria irabazi eban "Maite Kutuna" izeneko olerkiiaz, eta dedu onek eraginda, urtean, 1931 urtean, bere lenengo olerki-bilduma, "Bide Barrijak" argitaratzen dau. 1935 urtean "Arrats Beran" izeneko bilduma agertzen da.

Andik laster, 1936'an erritarren arteko gudea sortu zanean, bere aberriaren alde jarri zan buru-belarri. Eskolapiotarren ikastetxea gudaletxea biurtuta, eta ni "Oldargi" konpañikoa nintzala (geroago Otxandiano gudataldea biurtu zana), gudaletxe aretako buruzagitatz ezagutu neban. Edozelan be, JEL'en agintarrien uste betekoa izanik, zeregin bereizi ta garrantzitsuak emotsoezan.

Jorraillaren 29'gnean, au da, etsaiek lerkaiqueta basatiaren bidez sutan ipiñi

ta iru egun geroago, frankotarrak Gernika'ra sartu ziran. Bordele'tik etorritako Bernard izparkariari Gernika ikertzeko, Lauaxeta lagun joan ekion agindu eutsoen gure burukideek, eta ara biok joanda, errian zear batetik bestera joiazala, atxillo egin ebazan etsaitalde batek. Nai eben guzurra (gutarrek ezereztu ebela Gernika) Bernard'ek izenpetuta gero, aske laga eben berau. Lauaxeta, ostera, Gasteiz'era eroan, eta orduan espetxea zan Karmeldarren lekaide-txean giltzapetu eben, eta Bagillaren (Ekainilla'ren) 25'ean 32 urteko zala, Elixabete Deuna obitegiko ormaren ondoan goizaldean su-iskillotu eben.

Eriotzeari irmo ta zangar aurre egin eutsan, eta espetxaldi labur aretan, Jaungoiko ta aberriaganako maitasunaren-matasunez, olerki eder-ederrak idatzi ebazan, nire ustez berak idatziriko ederrenetariokoak. Eriotz-aurrean bakotxa dan bezela agertzen da, eta une goren orretan, Lauaxeta gizuren jasekoa zala ondo bai ondo erakutsi euskun, bildur barik eta biotza maitasunez gaiñezka eriotzearen itzaletan suntziteko zorian zala.

ZELAKOA ZAN...?

Soiñez, goibe ertaiñekoa, ez andi ez txiki, baiña beragan nabarmenena, begien so sarkor eta baketsua zan, barru andiko edertzaleari dagokionez. Begi sarkorrek betaurren atzetik dizdir egiten eben, urgeldi baten bake ta sakontasunaz. Bera ezagutu baiño ez, gizaki apartekoa zala oartu nintzan. Berba urriko ta barrukoia izanik, une luzeetan zear isillik iraun oi eban, bere oarmen indartsuak beste mundu batera eroiala. Borborka erion abertzaletasuna, ez berba-lapiko orreïn sasi-abertzaletasunaz, biotzean ondo irarrita daroan benetako abertzaletasunaz baiño. Bilbao'ko Euzko Gaztedia'n ezagutu neban. Besteen artean, aldi areitako bere adjskidetzat oneik dagikedaz: Perico Albizu, Jose Luis Irisarri, Jose Maria Ansola, Jose Maria Gojeaskoetxea, Pedro Basaldua, Andres Aranbaltza, Jose Maria Uriguen etab. Yon nire anai zanaren adiskidea zan, eta aren bidez Lauaxeta ezagutu neban, eta izan be, lenengotik ederretsi neban.

Orain bost urte Mungia'n egin geutsan goratarrean, nirj etorri yatan "Lauaxeta Abertzale" gaitzaz jardutea, eta gaurko nire gaia "Lauaxeta Olerkarj" da. Zelakoa zan olerkarizat...? Onen aurretik, baiña, itaun oneri erantzun bear: Olerkari izatea, zer da...? Doai batek jota, inguratzen yakona biotzaren sakoneneraiño oartzea, eta zirrara ori, barru-min ori, besteakan piztuten jakitea. Olerkaria, eder-miña bidean zear ereintzen doa, ezker-eskubi sentipen-lorak sortuz, oiko gauzetan berak dakusan amesa guri ikusi-erazoz, eta biotzaren irrikaz edertasunaren gaindegietara gure arimak goratuz.

Olermenaren giltza dan barru-min orren bidean, gitxi iritxi dira Lauaxeta'ren maillaraiño. Bere edozein olerkia irakurten asi baiño ez, bereala oartuko dogu barru-min edo liriku-sentipen ori oroz gain oartzen dala, gure oarmena atxillo egiteraiño. Nik, Lauaxeta gure olerkarien gaillurrean ipinten dot, Lizardi ta Orixe'rekin, irukote bikaiña eratur.

Orren olerkari yaukala izanik, zergaitik ez dau gaurregun aipu andiagorik lortzen...? Nik al dakit...! Gaur margozki ontzat ederresten diran zirriborroak, eresi bikaintzat goratzen diran zarata-naaste orreik, eta euskera batuaren usaiñaz edozelan jositako berba ganorabakoak, gorengo olerkitzat iruntsi-erazo dauskuenean, olakorik jazo daiten ez da arrigarria. Gure Euzkadi bere edestial-

diko utsune baten zear doa, eta aulaldi au amaituta, benetako ertilariek dago-
kien lekua artuko dabe, eta nik uste, egunen baten Lauaxeta'k gorenetakoa
izartzat dizdir egingo dau.

Egiari zor dautsagun begirunez, esan bearrean naz, aitu baten bere olerkiak
ulerterrazak ez dirala. Olerkarien bideak mugatuak dira, neurria ta oskidetza
edo errima dirala-ta. Itz gitxitan asko adierazo nai danean, zailtasun ori ager-
tzen da. Orixe bera, Lizardi ta Orixe'ri buruz esango neuke. Lauaxeta'gan bes-
te oztopo bat da, gaur arrotz egiten yakun, baiña bere aldietan, Bizkai'ko ara-
natarrek erabilten eben idazkerea, baiña edozelan be, onek ez dautso kentzen
gauza andirik bere bikaintasunarj, gogoan arturik batez be, edozein olerki asti-
ro ta ausnartuz irakurri bear dogula, eta au egitean, dalako zailtasuna osten-
tzen da.

Barriro be: zelako olarkaria da Lauaxeta...? Zugaitzak zituakaitik ezagutzen
ei'dira, eta itaun orreri erantzuteko, oba ez, bere olerkiak txastau baiño, eta
auxegaitik, jarraian, agirian jarriko dodaz, nire ustez ederrentzat dodazanak.
Onein urkeratutakoen artean, lenengo ta azken aapaldiak emongo dodaz, bi-
tartekoen aapaldien laburpena egiñez, besterik eziña dalako astirik ezagaitik.
Onezaz gaiñera, ez neuke zuen jasapena arriskuan ipiñi gura. Berak argitara-
turiko jarraieran ikusiko doguz, azkenerako lagarik, eriotz-aurrean idatzi ebaza-
nak. Asi naiten, beraz, "BIDE BARRIJAK" bildumatik.

AROTZAK

Arotzak lan dagije, zar eta gastiak
oya batak badagi, ilkutxa bestiak

Arotz gazteari eskatzen dautso olerkariak oia amaitu dagiala, bere emazte
barriaz, zorion-abia izan dakion / Arotz zaarrari, baiña, ilkutxa astiro egin dagi-
tsala, itzalentzat da-ta / Zerraldoak itxarorik eta amesik ezin dauzalako sortu /
Eta gau isilla datorrenean, arotz gazteari barriro lanari ekin dagiola, eta zaarra-
ri, ostera, lanari lagateko, atsedena artu dagian izarrak agertzen dira-ta, baiña
goizaldean, ona emen olerkariak dakusana:

Egunak argi dagi mendixka ganian:
Arotz agure orrek amaitu dau lana.
Zerraldo baltza daurkit etxeko atian...
Gastia barriz Juak uxatu dau dana.
Erdi egiñik datza oe ain kutuna
Orain zertako dogu geure maitasuna?

ITAUNA

Maitatzen bazaitut, itaundu dautsozu
leyuan klisk-dagin illargi-izpijari.
Larrosa zuriko txindor kantubari
itza artu eziñik gaba igaro dozu.

Aizeari be itaundu dautsazu zeure ulean jolas dagianean, baita izarrari be

laztandu zaituenean. Itaundu dautsazu zeru garbiari, izadiari, baita itsasoko uinai be, maite zaitudan...

Maitasun orretzaz baiña, maite ori,
Ez dautsazu itaundu zeure bijotzari!

ERANTZUNA

||argi-mosu dabil edurtze zuriñan:
urbil geure soin oneik maitasun zorijan,
itzal miak dagijez bakartijan.

Otzak maite-itzak izoztu daroz aboan, eta dardar dixuri kolkoan / Maitaleak maiteñoari ia maite ete dauan, baiña oneri bekokia illuntzen yako / Maitaleak ostera, maiteñoaren begietan billatzen dau, eta ona emen onek dakusan erantzuna:

Ixil berak didatzi edurtze ganian;
goibelez illargija odeiyen artian...
Nok digarke erantzunoi gaberdi baltzean?

MAO GORRIJA

Maitasun ikurkorra zan
zure leyoko maoa;
ikusten neban goiz-iluntzatan
poztuten yatan gogoa.

Eta gero olerkariak ikusten dau ebagi ta mosu egiñez, gazte bateri damotsala bere maiteak, eta onein biotzak betiko orduan alkartzen dirala. Orduan olerkariak auxe diñotso:

Eskeiñ; zeutson mao ederra...
ene neskatil polita!
ta bazenkian ernia zala
neure negarrez bustita.

GABEKO IRRINTZIIA

Gau argitsuan bakarrik nago leyo idigijan,
ibai garbijan ixilik dabil iretargija.
Izpi zurbillak dizdiz dagije baso erdijan.
||argi orrek eztau itxartu artzain zolija.

Mugabeko bakeak zaintzen dau zeru-lurren maitasun-loa. Gaba urrezko koroiaz dabil, eta lora ameslariak gorantz usain gozoa. / Gau-gentzan zentzuak loratzen dira. Menditik abots baten intzira dator, eta dardarrez zeruan zear galtzen da. / Baso izoztuan zagozan maitale orrek, ez abestu, irrintzi orretan zure kezkek agertzen dira-ta. Isildu egizu maitasun samifiñaren otsa. / Zure

irrintziari biozkada dario, eta zeure samiñaz batera, neure samiñak abesten dau. Maitasun-naiak biotz orotan bardiñak, abesti guztiak kezka bardiña.

Irrintzi leuna galdu dok gaurko zero garbian.
Eta ire samin orrek tolestu yozak eguak.
Gau oroz, baiña, dardarka bere leyo idigijan
negar zotinka iraungo bai-yok neure goguak.

ITURRI NEGARRA

Ur gardenari begira
iturri-ertzean lilija:
ur altzoan lili aren irudija.

Maitasun-ego illunakaz aizeak laztantzen dau ura / Iturria, baiña, negarrez
doa, eta orduan urretxindorrek: / Zergatik negar ori...? Adar-gaiñean zurekin
abesten dot oroldio-bidean.

Eta orduan iturriaren negarra aditzen da azkenengoz:

— Neure altzuan maitia
euki-ta galdu ezkeru,
zelan negarrik ez dagiket maitero? —

MAITALE KUTUNA

Auxe da 1930 urtean Errenderi'n ospatu zan aurreneko olerki-sariketan le-
nengo saria ekarri eutsan olerkia. lru eragintza andiak bultzatu dabe Lauaxeta
bere olerkigintza guztian zear: Jaungoikoa, aberria, eta maitasuna. Maitasunaz
maitemindua, egunen baten ezagutuko eban bere biotzekoaz ames egiten
eban, eta bera lako gogo sakoneko olerkariari dagokionez, bere arima osoa
gordeten eban egunen baten bere emaztegaia izango zanarentzat, bitartean
bere amesik ederrenakaz gur egiten eutsala.

Ona emen lenengo aapaldia:

Iñoiz ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurak laztantzen dabe.
Begi gelgarria dargist biotzeko illuna
eta bere larrosak usainduten nabe.

Maitasun zaleak lur eta ortzja begira, bere mosuak otoi egiten dira / Lo da-
nean amesezko irribarreak aboko larrosetan, zelaiko liliak aizatztat arturik /
Biotzak ez dau ezagutzen nor dan, baiña bai ona ta liraiña bera, amesek olan
igarten dabe-ta / Sarri ikusiko eban bidean, eta edertzat artu, baiña nork esan,
zu ete zara nire neskutsa...? / Maitasun onek Jaunagan ditxaro, udabarran lo-
rak dakarrezanak, maiteñoa ekarriko dautso-ta. Indar isillak gogoak alkartu,
itzak loitu maitasun gurenak. Barruko malkoak, ez barreak, arimaren ispillu
gardenak dira. / Jolas-aldian ez ba'da, otoi-orduan alkartuko gara. Laga dagi-
gun ori Jaungoikoaren eskuan. / Ori etorri bitartean, bidetik ikusiriko neskati-
llak ezkongaitzat artuko dodaz, onekan ameslari zakust-eta. / Gure maitasu-

nak zerutarrak izanik, leikiderik ez ditu lausotuko. Gurari lizunak eta aragikeriak ez ditu bananduko. / F7kongai ikusteziña, entzun nire naia: iraun edurra baizen garbia, izan zaitetz gotzon baten gaia. / Izan zaitetz maite dodan ama baizen garbia. / Usoen antzera, urrumarako zara, zainduko zaitut oiñaze-orduan. / Zure ezpanentzat mosu samurrenak, samiñentzat maitasun-eztia, eta txori-abestiak zure lo-aldirako. / Zu maitatzeko nire biotz samurra, zu babesteko euskotar bildurbakoa... / Lokatzaren artean egan dagit. Andra baten oroitza naiko da, etsaien zear garbi iraun dagidan.

Eta olerkia olan amaitzen da:

Oi nire biotzeko ezkongai gardena!
beti, arren, aditu maitati ortzira,
Zeugan mosuba baizen kutun dot arrena!
Andrak ederren d;ra zerurantz begira!

ITUNA

Maite ori, agur, ilda betiko
geure maitasun kutuna.
Biotz orretan aspaldiz dauko
bere obi oso illuna.

Udabarrian sorturiko maitasuna, norik esan neguan il-kutxarako izango...? / Izan ete zan amasa...? Ames orren amaia, samintasunik latzena...! / leiotik illargiari begira gau baltzean, negar leunaz odeiak begizatzen dodaz. / Zeuk, baiña, zelan abestu gabeko aldi larrian...? Gelaren itzaletan biotzak abesti-otsa dantzu.

Eta azken aapaldia:

Neska sorgiña, gau baltzenezan
Bildurrik bere eztaukazu,
geure maitasun azurrotz ori
bijotzean ba darozu...?

MOSUBA

Abesti leunak loratzen ziran
espan ganeko gentzean.
Biotz samurra bildu eustazun
maitasunezko leyeen.

Orain abestirik ez, maitasunaren dizdira zerura begira malkoen artean. / Abestien erregin ori! abestu orain alai, zergaitik negar egin maitale garanean...?

Espan kutunak
mosuba damost amesti.
— Ta mosu onek — samurki diraust —
ez dabe anei abesti?

BIJOTZEAN

Lorategiko edur zurijan
irarri zendun neure irudija
Axia eldu ta egal otzez
autsitu eban guztija.

Lora baten idazten zenduan nire izena, baiña eguzkiak igartu lorea. / Nire gorputza marraztu zenduan arean, baiña ugin urdiñak atzindu.

Beti-betiko iraun dagijan
badakizu non sakon irarri?
Bijotz-barruban, maite kutuna,
maitasun-izkiz idatzi!

SEÑA! ABESTU

Zoritxarraren urrats ixillak
etxian dakust bakarrik.

Seintxubak baiña negar dagi-ta
ixilduteko, amear,
abots alaiaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan
dingilin dan.

Aiots garratzak biotza urratzen dabe. Eri zitala... orok iges, bakarrik itzi dabe. / Negarraren-negarrez begiak gorri, eta gorpua gelan argien artean. / Dorean joale itunak, danbaka itun biotzera. / Seintxua, baiña, negarrez, eta ixilteko, amak seaska-Abestiak aletzen dautsoz. Dingilin dangalan, Dingilin dan. / Gizon batzuk eroan dabe illobira, eta alargunak: "Betiko agur gure biotzak il dira". / Senarraren ogea zana zikotzek atzitu dabe. Emazte gaixoak laster urten beariko. / Atzamarretik kentzen dautsoe zillarrezko eleztuna, ezkondu ziraneko gomuta leuna. / Zapi zakarrez eldu da txirotasuna. Agur betiko asaben etxalde argia. Jaso balebe lurpeko burua... baiña itzi dagigun galdu dan etxea. / Seintxua, baiña, negarrez, eta ixiltzeko amak seaska-abestiak aletzen dautsoz. Dingilin dangalan, Dingilin dan. / Igartu dira lorak eta zugaitzak, baiña umotu, ostera, zoritxarrak alargunarentzat. Eta negarrez doa urrun aldera betiko, seinuarentzat ogiaren billa gose ankerra kentzeko.

Seintxuak baiña negar dagi-ta,
ixilduteko, amear.
Abots alayaz abesten dautsoz
siaska abesti maitiak.
Dingilin dangalan
Dingilin dan.

BETIKORRA

Juale-otsak entzuten dozuz,
il-juale itunak.
Euren ziyua ez dazau baiña
zeure barneko alaitasunak.
Nor il ete dan, itauntzen dozu
Oi neure kutuna!

Kanpai orre; n eragillea gure maitasuna da. Zerraldo baltza ikusi dozu, mutil gazte batzuk eroiela, eta zer daroela itauntzen dozu, neska aizuna...! / Zerraldo orretan doa gure biotzen maitasuna

Obi itxija idoro dozu
aran itunean:
sasi zorrotzak eta bedarrrak
illobi baldar izen gabea
Nor ete datzan jakin nai dozu?
Oi neskutz kutuna!
or Txen bako obijan datza
gure bijotzen maitetasuna!

ABESTIJA

"Esku orrein laztanez,
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu"

Neskak urari musuka, baiña ura loirik doa. / Ura kantari, neskea negarrez.
Eta urak orduan samurki: / Esku-lasztanez ura ez loitu. Ur gardena bakarrik gogoen ispillu. / Neskatzak garbitasuna ames egin arren, ura loi doa. / Abarretik tx; ndorak neskatillari bariro badiñotso urik ez loitzeko. / Eta orduan onek: "Zergaitik len ez esan ori?". / Zergaitik ez esan ori loitu ninduanari?

"Esku orrein laztanez
gaste, urik ez loitu.
Ur gardena bakarrik
gogoen ispillu"

BERE ILLOBIAÑ

Ona emen nire ustez, Lauaxeta'ren bikaiñenatariko olerki bat. Samur-samur da, biotzera zuzen doan orreitariko gogo-bitxi yaukala. Irakurten dodanetan, ezin esan alako biotz-miña eragiten daustana.

Urrundik nator lotan datzan illobira;
lo-dagi gotzon-eran, zerura begira.
Gurutz zuri gania

adaskatxu guriya,
lili-mosu antzean
usainduten obija.
Arlaban-gain otoika: maitsun-otoya
egak zabalik zeru-ziar doya.

Zeruan izpizko jantziaz dagoan bere maitiari itauntzen dautso, ia oroitzen dan emondako itzaz: "Neure bijotz-dardar ilda bere, zeurekin izango da beti". Itzok entzun nebazan samurki, samurki, txoria abeslari ta odoldurjko adaska bere orriak zabaltzen ebazanean. / Maitasun-mirariz biotz-antzeko larrosa ederra dager. / Etorri nire eskura, zeruraino eroan zagidazan. / Neure odolak gorrituko zaitu, eta neure altoan atsedean izango dozu. / Biotz loratu ori zagoz nirekin beti...!

Zeure eder aldian
min zara neu negarrez itun ikustian?
Ixildu da txorija, leun dabil axia,
eta larrosa altzotik tantada donia,
dardar... argizko dizdiz... Txarren antzera,
maite-malko bailitzan jausten da lurrera.

Itxasora!

Soñutzik ontzi-puntan, sakoneko lemazain
itxaso-barne nua zidor ezezaunen gain.
Ondartzan oro laga! — arriskubak darraigu —,
Lur-barri billatzale ametsa lagun dogu,
Liorreko lokatzok geure malkoz egiñak.
Arnas artzeko, billau
amaibako urdiñak.

Goazen aurrera! Iparraldean edur-mendiak, eta ugarteetan lamiñak. Eroango zaituet oialak aizean. / Aberriak bear ditu bide barriak, zabaldu osertzak. Itsaso gogorra, abendak maite zaitu! / Zeure altzora gatoz, lurra txikia guretzat, kendu odei ta laino! / Ez dogu balerik nai, gogai barriak baiño. Ementxe gatozkizuz jakintzaren egarritz. Legorretan amesik ez, baiña uraren barna goiak ikusten doguz. Gure itxaso gogorra. / Ekaitzaren orrua koldarren bildurra. Euskotarrak soillik altzo zabal orretan. Gudariak dagizuz, berunezko bizkarrak, tente dirau erroak, eta burni-iztarrak. / Zabaldu zeru-ateak, eriotza or dabil, or dabil maitasuna. Odiseu barri gara, geure abenda lez pioner gara, Zure altoan beti irri baten jkara. Euskotarren itsasoa, olde ta indarra! Aurrera! Ontzi-puntan soiñutsik. Aize-mosuai biotzak zabaldu. Ibillaldi au amibakoa da. Bein ontziratu itzulirik ez. Miñak lurrean itzj, atzean bediz itun diranak. Zeruak argi dagoz, begoz pozez begiak.

Uñen ganian dabiltz geroko abestiak...
Barriro esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euskotarren ontzija,
Goguak nausi diran argitasun goraiño.

"ARRATS BERAN" Jasotakoak
ZELAYETAKUA

Zelaira doa neskatxa:
- axia dabil loretan -
Zelaira doa neskatxa
maitasun-kanta kantetan.

Begi argiak, soin liraiña dozu: abestu daigun biok. / Abestu daigun soin orren lili usaiña, millazkaen antzo dantzan. / Erleak murmur loretan, zelaira doa neskatxa maitasun ona topetan. Ingumak dardar loretan, zelaira doa neskatxa maitasun deuna gordetan. Mendiko aize biguna, ator zelaira lore-billa lorak eta maitasuna.

Zelaira doa neskatxa
- Axia dabil loretan -.
Zelaira doa neskatxa;
- urretxindor bi kantetan! -.

EZKONTZA - GOXA

Zaldi-otsak axian
urkijak dardari -
Kanpain-otsak torrian
- zuriz jantzi zadi -.

Ezkongai polita zuriz jantzita, bekokia jasmiñez esita! Begira senarra or dozu!

Zaldi-otsak axian
- iñor dator larri -
Kanpai-otsak torrian
ziriz jantzi zadi! -.

Estalkai zuri, gonantza gorria. Or dator maitasuna egadun !ilia, gordez doaz izarrak. / Zaldi-otsak galdu dira urrutian, eta kanpai-otsak barriro zuriz jantziteko. / Ama, ezkondu gura dot, ezkondu. Goiz-erdia da, eta enarak badoaz, itsasoa dan urdin, makalak egon ezin!

zaldi-otsak axian
- iñor ez da agiri -
Kanpai-otsak torrian
altzez jantzi zadi!

BURTZAIÑA

Bedar ezez burdija
arrats onen usaiña! -
Ain samur abestija,
norantz zuaz, burtzaiña?

Latsa kantari, eta zumak dantzari, bideko kurrinkaz burdi orrek daroa zelaiko gentza osoa. / Lerdoiak ez dau biotzik, ezta arratsak samiñik. Zeugaitik, neskatxak itzi dabe bearra. Akuillu orren puntan, dizdir dozu izarra? Gorriak dira idien gingillak. Landa zabalén jaunoí - gentzaz gurdi astuna - kurrinkaz bada-roazu neskatxén maitasuna!

Bedar ezez burdija
- arrats onen usaiña! -.
Ain samur abestija
norantz zoaz burtzaiña?

ESPETXEKUARENA

Itzaso orren narru nabarra
pantera batena dirudi!
Ezpetxeko atezain zarra
itxi nagik goxeko bidari.

Tori giltzok diñotso atezaiñak - eta bete itsas-miña. Aizearen egal-muturrean daukazu iñork txastaubako lurriña! / Noiz arte - ditauntso bidariak - lagako nozu zidarrezko itxasoan? Aske zara nai arte, gojz ederra maite dagizun

Neure maitiaren oñotsak
- urretxindor ori ago ixillik -
bide argietan yatorrzak!
Atezaña azke laga nagik!

- Tori giltzok, urrezko giltzok -diñotso atezaiñak- maitasuna yabilk landetan. Mun egizuz esku zuriak, eta laztan bat begietan. / bidariak orduan: maltasun orrentzat aske nabilke larradian? Zintzo maite dauanarentzat, ez dago giltzik espetxean!

Aberri amaren negarra
neugana yatork mendijetatik!
espetxeko atezain zarra,
bein soillik azke laga nagik!

Agur giltzok -diñotso atezaiñak-. Guda-otsak dantzudaz. Arren, itxi ondo atea, eta galdu zaiteze uñetan.

-Baiña aberri ama aldezteko
enauk itxiko kate-barik?
- Eure erri ori azkatzeko
etxak iriko espetxerik! -.

MENDIGOXALIARENA

Olerki oneri ezer ez kentzearren, osorik emoten dot, abertzaletasuna ta edertasuna borborka darioz-eta.

Mendi eze, ikurrin ederr,
azke nai zaittut axian.
Amarr gasteren lerdena
makilla luzez bidian!

Mendi-bitxidorr berdiok,
arin or duaz kantari;
"Dana emon bear yako
maite dan azkatasunari"

Eta ixil dago arratsa
Euzkadi'ko lur ganian.
Amar gazteren lerrdena
makilla luzez bidian!

II

Gastedi orren didarra
bai-dala didar zolija!
Aberri baten samiñez
urduri dabil errija.

Azkatasun-goxalderuntz
sugarra dira basuak.
Sugarra basuak eta
zidarra argija itxasuak.

Orr duan ozte-aldrea
aberri-miñez kantari!
"Dana emon bear yako
maitte dan azkatasunari".

III

Gaste erreik goruntz doaz
abesti eta ikurriñez.
Lañuan baña tiro otsak:
bedartza dager odolez.

Ikaraz duaz usuak,
mendi!ja dago ixillean,
Amarr gasteren lerrdena
bixitza barik lurrean!

Eta illuntzeko bakian
norbaitek darrai kantari;
"Dana emon bear yako
maitte dan azkatasunari".

1936'ko erritarren arteko gudan, Gorbea mendian, Elgezabal, Kortabarria eta Estabillo mendigoizaleak, asaldatuek atxillo egin ebezan Iñaki Deunaren egunean. Andik astebete bitara, Dagonilla'ren 14'gnean iskilloz erail izan ziran Gasteiz'eko obitegiko ormaren ondoan. Eriotz eredugarria eurona, aberria ta Jaungoikoa aldarrikatuz, bizitzaren udabarri betean. Ondo ezagutzen neban Elgezabal'dar Estepan, Bilbao'ko Eusko Gaztedi'ko mendigoizalea (Abertzaliak taldekoa), maiz alkarrekin ibilli gintzazalako mendietan zear. Ñik ezaguturiko lagunik onenatarikoa zan. Biotz utsa izanik, ontasun eta abertzaletasuna borborka eriozan, mendiko iturburuari ur gardena lakoxe.

Franco il ondoren, Bilbao'ko Euzko Gastedia'ko mendigoizale taldekuok ai

tsen. Gure artean illarrian zelako idazkuna ipinteko erabilli zanean, nik auxe esan neutsen laguna: Zergaitik ez ipiñi Lauaxeta'k olerki baten diñoan auxe: "Dana emon bear yako maite dan azkatasunari...?"

Abo batez onartu zan, eta gaur illarrjaren obo-ertzean, dalako idazkuna agertzen da.

MUTXURDIÑA

Ardo zuri
Ardo gorri
ittunik yagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

Euki neban, euki, tellabako etxea. Ara eldu yatazan senargai bi, biak konkorrak, ardanetxeko zorrak kentzeko esperantzan. / Zato batekin nintzalarik etorri yatan, etorri, mutil maingo, aurpegi gorri, nirekin ezkontzeko. Maitasun-zin asko egiñik, edan eustan zatoa, eta laga ninduan bakarrik. / Orain aukot, euki, zatoa, eta gatz barik nire lapikoa —Artu nagizu maitetzat, eta emongo dautsut laztan samurra sarri. Egunez aboan, eta gabaz sutondoan sorgin-ipuiñak kantatzera.

Ardo Zuri
Ardo gorri,
ittunik yagokan mutxurdin
poztu egik zurrut batekin.

AMAYUR GAZTELU BALTZA

Amayur gaztelu baltz ori
—berreun gudari oro sumin—
zaintzen zaituben saldun onak
Naparra-aldez egin dabe zin.

Gazte bildurbakoen artean, Yatsu Jauna, Xabier'eko zaldun gurena. / Goiko dorrean ikurrin bat —kate ta lili— zabalik. Au salduko dauan semerik ez da jaio. / Atezain orrek zidar-turutaz oiuegik, Baztan'en arrotzbako mendirik ez dagota. / Miranda'ko konte españarrak Amaiur esiturik dauko / Berarekin Lerinigo etoiaren semea, erribako zaldun dongea. / Goizaldetik suaga-otsak, ormatan

esku-zurubiak, eta aizean gezi zorrotzak. / Dorrean, baiña, ikurrin bat -kate ta
Nork zapalduko berreun gudari zoliak / Amaieur, gaztelu baltza, jausi yatzuz
dorreak, baiña ez zaitez arritu arrotz ori, napar-seme baidira guztiak / Arresi ta
zubiak ausita, eriotza samur zakieiz, aberri-miñez jardun dira-ta.

Miranda'ko konte gaizto orrek
jo egizuz zidar-turutak.
ikurrin bat -kate ta -
eztau laztanduko axeak

Berreun gudari oro sumin
gaztelu-pian dagoz illik.
Ordutik ona -zenbat laiño,
Naparruan ezta aberririk.

Urrengo olerki biok, ez ziran argitaratu olerki bilduma bietan.

LORETAN

Leyo zuripe ortan illargi gabetan
maitasuna dirudi ames gorubetan.

Baiña gabaz iruten dodana, goizalde-eskuak urratzen dau. / Nire malkoz
bustitako liliak, ez dirautsuz nire gurariak? / Lora-lekan tanto bat ikustean,
goiz-agurra dala diñozu. / Zure biotz-lilian nire negarrok isuri aal ba'neuz goi-
zoro!

Orduan ortzargian maitasun-malkuak
eleukez estalduko nire lei gaxuak.

ITURRI LEGORTUA

Iturri maite ori
zelan legortu zara?
Nok kendu ete dautzu
altzoko ur-ikara?
Zuk entzun zendun gure
maitasun itz-dardara...

Zure begiaz garden begiratu ninduan / Baiña ordutik ona, eguzkiak legortu
nabe. / Sarri beteten zenduan aren suil garbia, baiña suil aren garbia izuna
zan.

Orain negar ta negar
dagist biotz illunak
nok legortuko ditu
nire negar itunak?
Oso legortuko dauz
barruko maitasunak.

Eriotzera galdu dabe gure Lauaxeta. Berak badaki edozein egunetan eriotz-ordua iragarriko dautsoela, eta arrezkero, ordu gitxi batzuen epean, erailgo dabela egunsentiko eguzkia, Naparra aldetik jagi da; tenean urre ta odolezko aintzapean. Itzela da, bere udabarrian il bear au, ozta-ozta bizi izaten asi danean, bakarrik eta etxetik urrun. Jainkozale ta abertzale sutsua zan Lauaxeta; aberria maite eban biotzaren sakoneneraiño, eta orain Euzkadi'ren alde ilteko unea etorri yako, eta badoa azken dei orretara, irmo, sutsu, azkar, Jauna ikusteko itxaropenak ego yaukalak damotsoz, munduko ezerezkeri ta bidebagekerien gaiñetik, erraldoi baten indarraz jagiteko. Une goren onetan, iñoizkorik olerkarien sentitzen da, eta eriotzeari aurrez-aurre begiraturuz, bere arimearen bitxiak alde-erreskan isurtzen yakoz. Biotzaren diamante oneik, nire ustez, bere olerkaririk gorenak dira, Lauaxeta gain-gaiñeko olerkaritzat bereizten dabela. Eta geuri jarauntsitzat laga ondoren, gora begira, goizalde baten, maitasunaren eta itxaropenaren egoetan itzi ginduzan. Eriotza, non da zure garaipena...?

Azken erakustaldi onetan, espetxean euskeraz idatzitakoen artetik, ereduen antzera, ona emen zati batzuk:

EGUNA BERANTZ DOA

Neurekin gel zaitte arrats-begi da-ta:
itzal batez goxoz urdintzen da Jata.
Ene Josu maite
gel zaitte!

Olerkariaren egun-argia beerantz doa, itzalak joten dau atadia, eta otz biotzean. / Bidazti Deunari beragana sartzeko diñotso, Bere itzaz biziteko. / Idazti Deunen muin eztiak emoteko diñotso, eta bere mintzo gozoa, / Olerkariak barru guztia berotan dauala, eriotz itzala argi biurtu bekio. Jaunarekin dana atsegin.

Ora; n sakon dakust zeure eriotz ori;
zegaitik daukozun biotz deuna gori.
Ene Josu maite
gel zaitte!

BIOTZ DONEA

Biotz xamur-berea
gar gori batekin zauritzen nozu.
Zauri ganean, ordea,
maitasun-larrosa zabaltzen dozu.
Sakon bitan nabil, ez-bai goxoan;
su gordiñak nauka zure ondoan

Gabaz argi zakusat,
egunez berriz illun.
Zurekin naukazu, neugaz ez zaukat.
Eguzkitan edur, otzetan sugar.
Jolas bikoitz onek galduta nakar.
Baña bien tartean
sugar zakit, Jauna, biotz barnean!

AZKEN OYUA

goiz eder onetan erail bear nabe
txindor baten txintak gozotan naukela?
El naiten leyora begjok intz gabe.

Gorbeitik yatorr kañoi-otsa, eta egazkiñak odei-lapur doaz. Guda-gotzon baltzak odolez. / Euren oin-aurrean gudariak eurrez. Gazte argjok, eutsi lur aman! / Bera baizen ona iñoiz ez. / Baiña, Jauna, bildotsaren antzera ken nai nozu, bearren nauanean aberriak? Bere deia dantzut iskillu-otsen artean. Onen dizdir-artean eriotza betorkit. Arte adartsupean nire eriotz-zauriaren babesa gura dot. Zuzentzaren alde isuri daidala biotz-iturria. Gozo ta eder gizonen kopetan aberriarekiko eriotz-musuak. Mendietan ajntzak zabaldu dauz esku argituak jausi nendin! / Azken orduan laztandu naguela garaitz-abar billa doazen zaldiak, eta begi onein laño leiartuan, gizuren argiak; esku oneik luzatu bediz ikurriñari eusteko. Makurtu zaitetz oi buru neurea lur amaren besarte gozoan! Eta anai maiteok eutsj burrukari, iñoiz ilgo ez dan euskoen amari. / Jauna emostazu arren eriotz au, koldarrentzat larrosen usaiña. Bial egistazu askatasun deuna, atzindu nai dot arrotzen iraiña, nire gorputzak atsedean dagian Egun Andirarte. Zuzentzaren alde jausi nadilla goiz eder argian. Eta ba-kea sortuta, neure azurrak besteenakin batu; eresi gurenaz lagundu obi bakar-arte.

Baiña, arren, bukatu
oroigailuaren maitasun itzala
Kistoren gurutzat; Beragan ditxarot
Josu'ren fedea besterik eztaukot.
Erri zintzo-onenak zaindu dagiala
il gintzanen atsa, il gintzanen ala.

AGUR EUZKADI

Olerki yaukal au bere azken irrika-oiutzat osorik emoten dautsuet merezi dau-ta

Agur, Euzkadi, Jaunak naroa
Aberri eder argira
Neure negarrak jarion neuzan
zeure mendiai begira.

Seme bat zeukan, baña etsayak
kendu eutsoen biotza;
soin ederrera ixuri yakon
mayetz bateko goiz otza.

Gurutz Deunari mosu egiñaz
aldegin eutson mundutik.
Kistoren gentza abo ganean
loratu yakon gastetik.

Euzkadi ona, zagoz betiko
Kistoren fede betean;
olan zoruna billauko dozu
emen ezpada zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot,
ziñistu bada, euskoa:
Euzkadi azke izan daitean
zaindu Josuren legea.

Eder yatazan euzko bazterrak,
eder itxaso zabala;
baiña oraintxe ederrago yat
eriotz onen itzala!

Jaunaren maitez, aberri maitez,
ez eban euki bildurrik,
eta zeuretzat zorion utsa
opaldu eutson gogotik.

Gaztea nozu bizitz onetan
t'ez yatan palta gauzarik.
Jauna! gogorra aldi onetan
iges eitea lurretik.

Ezpedi egin neure oldea,
zeure naia bai, ostera.
Gogoia boa zeru argira,
gorputza lur illunera.

Nire txosten oneri amaia etorri yako, baiña onen aurretik, Euzkadi'ko olerkan onenatariko bateri eskindutako biotzetiko nire oroigarri au amaitzeko, 1987'ko Bagillaren (Ekainilla'n) 27'gnean Mungia'n, Euskerazaintza-euskera-zaleak, egin geutsan goratarrean, Lauaxeta'ren alde irakurri neban olerkia, barrero be irakurriko dautsuet.

OLERKARIA ODOLETAN

il eben olerkaria
argia sortzen zanean,
udabarri yaukalean
jausi zan ameslaria.
atzean orma zuria
zortzi zibillak aurrean,
erori zan goizaldean
gure Lauaxeta andia

— Isillik yatort eriotza
udabarriko goizaldean,
nire aberriko magalean
jainkogana yoat biotza.

Gazte-gazterik joan zan
Euzkadi'ko urretxindorra,
errime, zintzo, gogorra,
bizitzaren goizaldean.
Betiko galdu genduan
bere eler-min maitekorra,
itzali zan ameskorra
udabarriko zeruan.

—Ortzian somatzen dot eguna...
Guda zital batek eria,
negarretan dantzut etsia
nire Euzkadi maite kuttuna.

Goizaldeko itxarkundean
isildu ziran txoriak
gaztearen begi argiak
il-zorian ikustean.

Zortzi eztrandak illerrian
uxatzen dabez txoriak,
zortzi naigabezko zauriak
agertzen dira ozkarbian
Ertsi dira goiztirian
Lauaxeta'ren begiak,
odol biziko olerkiak
sortu d'ira goiz-argian.

— Zortzi olerki gorri bizian
jarri dira ene bularrean,
zortzi larrosa eder-miñean
Jaungoikoaganako bidian.

Zeu lez erori ziranak
egin ei'dabe aberria,
eurok doguz euskarria
gure anai maite joanak.
Obi-kolkoan etzanak,
gaztedi maitagarria...
Au gure oiñaze larria
galdu genduan laztanak...

Euzkadi'ren alde bizi zan,
iraun eban beti abertzale,
Jainko ta erriaren maitale
il yakun bere udabarrian.

Baiña ez da il olerkaria,
bizirik darrai aizean,
geugaz dogu biotzean
aberriko abeslaria.

An, urrutiko ibarrean,
ozkorriko izpi joriak
biurtu ziran zauriak
aiene ;sillak bai'liran.

—Txoriok, abestu zeruan...
ilten lagundu egidazue,
apa-laztandu nagizue
ur yabildan azken orduan...!

Bera zan olerki-abia
arrastiriko bakean,
eta gaurko goizaldean
atzoko asperen garbia.

Agur, Lauxeta kuttuna
aberriagaitik opari,
ames ederren abeslari
bioatzu ene maitasuna.

Zubiri'tar Iñaki

1993'ko azillaren 27ganean.

Itzaldi au Bilbao'ko Barrainkua kaleko Udal Kultura Etxean esan eban Zubiri tar Iñakik Euskerazaintzako euskerazaiñen bete-bearra beteteko.
Itzaldi ondoren Solozabal tar Paulin'ek olerkitxo bat abestu eban.
Ondoren Olazar tar Martin, Euskerazaintzako lendakariak erantzun.

LAUXETA

Urkjaga'tar Estepan jauna,
euskal mendiko aritza,
zugatz artean artu zenduan
olermenaren goi itza;
tantai artean lerdena ziñan
luze, lirain ta zeatza,
mendi guztiak zuri begira
asetu eben biotza.

Gero urira beratu ziñan
almen gurenez jantzirik,
argia zeunkan, beñi, dizdikza
barrua zirikaturik;
Euskalerrria aurrean zendun,
gogoz, zuri entzun nairik,
urrezko itzak esan zenduzan
erri mamiñez beterik.

Gizona ziñan eta egia
euzko odolez bustia,
erria gaitik il zinduezan
a zan maitasun garbia;!
geroztik, beti, zure odola
oiuka dago maitia,
zure bizitzak gure bizitzaz
alkartu dau Aberria.

PAULIN

ZUBIRI'TAR IÑAKI EUSKERAZAINAREN SARRERA ITZALDIARI ERANTZUNA

Bilbao'n, 1993-11-27

Jaun andreok:

Arreta aundiaz entzun dogu Zubiri'tar Iñaki euskerazaiñaren berbaldia: Sakona, beroa, ondo zeaztua ta Lauaxeta aundiaganako maitasunez ondo betetua izan da.

Lauxeta, berak esan dauan lez, Euskalerrian izan diran iru olerkari gorengoan artean, lirika-saillan beintzat, ezarri bear dogu. Eta berak argi agertu dauskunez, zor jakon ornen au ukatu egiten jako gaur egun. Orregaitik ondo jatorku ornen lez eta bakoitxa bere lekuan izan daiten, entzun dogun eta argitaratuko dan berbaldi au.

Ederto agertu dau Lauaxeta'ren olerkien bidez, zelakoa izan zan beronen gogoaz gaztaroko eriotz gogoraren aurrean. Nik ez dot sekula izan aukerarik irakurteko, baiña sarritan entzun dot Lauaxeta'k il-aurretuan bere azken-naia edo testamentua idatzi ebala. Erderaz egiña el da baiña oso irakurgarria. Bere eskuetan ebala esan eustan Aita Kolinas josu-lagun mungitarrak, baiña arrezkero agiri garrantzitsu ori nondik nora dabillen ez dakit. Gai oneri buruz gero izango dogun alkar-izketan zerbait esan geinke, iñok argibiderik emoteko badauka beintzat.

Azken-nai orretan, Aita Kolinas'ek esan eustanez, bizi-bizi agertzen da, eriotz-orduko agerpenak izaten daben bizitasunaz, Lauaxeta'ren abertzaletasuna, eta Jainko-zaletasuna.

Lauaxeta'ren azken-naiaren arazo au bear ba'da argituta eta idatzita egongo da, baiña ondo egingo leuke gure Iñaki Zubiri'k aldizkari baten gai ori azalduko ba'leu.

o • •

Esan dogu Lauaxeta'ri ez jakola emoten gaur, zor jakon neurriko goratasunik, ez da entzuten lirika-saillan gitxienez iru aundienetariko bat dala.

Ori arazo bat dogu, egiak eta zuzentasunak bideratzea eskatzen daben arazoa.

Baiña zergaitik jasoten da ori?

Nire ustez, politika-arazoa da. Arana'tar Sabin'en bidekoa ta jelkideen artekoa dala argi ikusten da eta bide orreatatik ez doazen jdzaleak sarritan ornen ori ukatu egiten dautsoe. Tamalgarria da aberriaren arazoetan errigintza edo politikea zatiketarako bidea izatea eta arazo ori elerti-arloa sartzea. Bizkai'koa izateak be izan leike zer-ikusia.

Zer egin geinke edo egin bear dogu?

Zubiri'tar Iñakik gaur egin dauana, Mungia'n, orain urte batzuk Euskara-zaintzak egin eban omenaldiagaz billatu zana: Geuk beintzat zor dautsagun omena ta goratasuna eskiñi gure olerkari aundiari.

Lauaxeta'ren olerkiak ulertzea beti ez dala erreza izaten esan dausku izlariak. Eta orretan beronegaz batera nator, batez be gipuzkoarrentzat eta Bizkai'ko euskerea ondo landu ez dabenentzat, ulertzea gatxa da: neuri gatx egin jatan orain urte batzuk lenengoz irakurri nebanean.

Gaiztasun ori oiñarritzeko, Sabin'en idazkera darabillela diño Iñakik eta orretan be batera nator. Bizkaitarrak errez ulertzen dogu Sabin'en idazkera, batez be Durango, Gernika eta itxas-ertzean bizi diranak. Ez ain errez Arratia-aldekoak. Ezin ukatu geinke gaurko idazkerea geiago dala Azkue'ren bidekoa, Sabin'en bidekoa baiño, naizta beti izan Sabin'en ikutu aundi bat.

Ez ete dago beste zio bat gaiztasun ori oiñarritzeko? Nik baietz uste dot. Lauaxeta'k non-nai artzen dauz aditz-joko asmatuak, gramatikako arauetan oiñarrituta, baiña erriak sekula erabilli ez dauazanak. Erabilte orrek, euskerea landu ez dabenai batez be, zailtasuna aundia emoten dautse edo "damotse".

Lauaxeta'ren gai eragilleak iru dirala diño izlariak: Jaungoikoa, aberria ta maitasuna.

Ezin ukatu leike gai nagusiak orreik dirala, baiña arlo onetan zertxobait gaiñeratuko neuke nik.

Ba-dagoz beste gai batzuk Lauaxeta'k ia iñoz aitzuten ez dauazanak be: Eriotzea, izadia, gaztedia ta askatasuna. Olerkirik geienetan aurkituko doguz gai oneik ederkiro erabillita, sakontasun eta bizitasun aundia dabela.

Eta gai oneik agertzeko trebebideak begiratu ezkerro, zerbait geiago esango neuke.

Lauaxeta'k asko maite dauz argia ta margoak. Gauza bi orreik begietara datoz baiña agertzen dira beste zentzunak be ugari: usaiña, otz-bero ta apela, ikumena, entzumena eta dastamena. Zentzunak erabilte onek asko jazten dauz olerkiak.

Trebetasun ori ez da Lauaxeta'rena bakarrik. Antzeko trebebideak aurkitzen doguz Juan Ramon Jimenez'engan, 27'garren gizaldiko idazleengan (Ez aitzu Garcia Lorca'k ta Lauaxeta'k artu-emonak izan ebezala) eta arlo orretan Europa'ko beste olerkari-talde batzuk be batera datoz, Parnaso'tarrak, ezaugarri-zaleak edo sinbolistak eta abar.

Bere aldiko idazleen antzak gure Lauaxeta'r goratasuna emoten dautso, besteen antzekoa izateaz ez dau ezer galtzen, irabazi baiño.

Ederra izan da, Iñaki, zure itzaldia eta pentsabide asko ekarri dauskuz, Eskerrik asko.

OLAZARitar MARTIN'ek

GOI -YAKINTZA

SORKARIDIA

Zer ote da SORKARIDIA? Enurarik gabe, bizi dan eta nun-nai dagoen guziaren multzoa, bizi dan eta bizi gabeko guztiena, oro da sorkaridia. Eta bera nolakoa dan ikusteko, sorkari guztien be i zeatza aztertu be osotasunarena, gero, atera al-izateko.

Eta bera nolabait aztertu nayeian ari-izan ezkeru, bere aunditasuna, guztiz izuga i eziña dana; noski, muga-gabekoa bezela agertzen zaigu zabalde ikaraga ian iza , izarbel eta beste izakjak mif aka ta mil aka ari dira, biraka guztiak, zabalde ortan igerika ari-izango bailiran beti, iñoiz eta iñun gelditu gabe. Eta gizona sorkari yaukalena, Lu ontan bizi da, zabalde guziaren izarbel berezi ontan.

Guzti ori begiratzean e uz geron baitan sortzen diran galderak; Zerezkoa da zabalde ori?, ezereza ez izanik, bidezkoa baita zerbait izatea. Etera ote? Agian bai, zabalde guztia betetzen dan laspel antzekoa dan etera, ta zabaldea eter itxaso zabala bezela begiratzekoa edo da, ta itxaso ortan iza guztiak tai-gabeko dantzan bide dabiliz.

Zabalde izuga i ori nunbait asten al da?, nunbait amaitzen al da? Nork jakin! Iñun asten eta amaitzen ezpada, zabaldiarekin bat edo dagi bere zabaltasun zabalean. Eta nunbait asten eta amaitzen bada, mugaturjk egon bea nolabait; baña o ela izan ezkeru, zer ote dago muga o en beste aldean?, beste zabalde ikaraga iagoa ote?; zein eta nola izan diteke biga en zabalde ori? F7in jakin! Donokia apika? Irudimena ere oso motz geratzen da o en susmoa be eukitzeko. Dana dala, aunditasun izuga ia beti, iñun edo amaitzen ez dan aunditasuna.

Amaibageko asmoa geron baitan geratzen da, iñundik amairik ez duen zerbaiten asmoa. Andoiztian zenbakiak ematen digu amaigabekoaren susmoren bat, baña ori esatea eí-aza bada ere, zala benetan ulertzeko izatea; ta amaigabekoa dana bidezkoa dirudi asierarik ere ez izatea. Ez asi, ez amai, oPa ezkuktuki aundia!, argitzeko eziña bezela agertzen zaiguna.

Edozein eraz zabalde o en nunbait bizi da gizona. Lu a deitzen dugun izarbel ontan, eta bizi ori izan al-izateko ez dira gutxi izan bea diran baldintzak edo jazokerak; ona emen batzuen batzuk: Eguaren aidea bere antolapen bereziaz, arnasa artu al-izateko noski; egu oí-ek lu guztia inguratzen du, irurogeiren bat aneurkin lodi dala. Aztuntasuna edo Lu ak duen erakarpen aundia, o en bidez guziaren azta neurtu ditekela. Lu aren kaizua, ain zuzen erakarpen ori zeintzen duena, kaizu ta erakarpena alka ekikoak diralako. Lu etik eguzkiriño dagoen bitartea, bea ezkoa zayon beroa euki al-izateko ta eguzkitik datozkion beste eragipenak ere artzeko. Ura, Ludian barna ain ugari zabaldua dagoena, ainbeste bea etarako ezinbestekoa zaiguna. Urtean barna ainbat aldatzen dan giroa, azku ia lortu al-izateko ta ainbeste bea betetzeko ezinbestekoa dana. Luí-aren emankortasuna ainbeste landare-mota bizi ditezken eta gizonaren ainbat bea etarako baitezpadakoak diranak. Ludiak bere ardatzaren eta eguzkiaren inguruan egiten dituen birundak, neu i bereziaz egiñak diranak.

Euriak, edu ak, aizeak eta izotzak ere burutzen dituzten beren eragipenak, era askotan eta tokien zea ain ezberdiñak diranak. Eta giza-soñaren izakera, esandako eragipen guztiak artu al-izateko ta guztien bitartez bizi al-izateko. Ez dira gutxi ori lortu al-izateko ezinbestekoak diran eragipenak; eta oyek, beren neu i berezian, Ludi'an bakarik izan ditezkenak; beraz, gure izartian dagoen beste izarbeletan emengo bizia eziña dala bayeztu dezakegu zalantzik gabe.

Eta beste iza etan eta auen izarbeletan ba ote dago gurea bezelako bizia?; eztagigu baña izatekotan gure Ludiaren antzeko beste izarbelean izan bear. Izan al diteke beste erazko beste biziren bat?; ori guretzat gaur ezkutuki osoa dugu ta eziña zaigu ori buruz ari-izatea. Gaurko ontan dakigunez ezin jkusi gj-za-bizirik Ludi'an dagoena baño. Idazteunak Lu eko atsegin-baratzaz itzagiten digu; ez ote zan baratz ori gure Ludi guzia?, beste izaren artean baka a? Bidezkoa edo da orela ustea.

Ain aundia dan izar guztien multzoa begiratzean, zearo a iturik geratzeko gizona beti. Zeatzez ezagutzea guztiz eziña bada ere, ba-dakigu zabalde osoan iza ak eta izarbelak mj-laka ta milaka birundaka ari dirala, beren bidetik iñoiz irten gabe; birundaka beren ardatzaren inguruan eta beste izaren inguruan ere, alka etik bitarte berean beti, igerika ibiliko bailiran. Ba-dagoz zabaldean barna beste jzaki batzuk ere, isats-iza ak bezela, baña auek, zergatik jakin gabe, noizean bein bakarik agertzen dira zabaldean zeaí-, lu etik osta-ostan ikusi al-izateko, ta oyei buruz gutxi, oso gutxi, jakin al dezakeguna.

Nola eusten dioten beren buruari izaki guzti oyek izuga ia dan zabalde ortan?, eter-itxasoan alka en ondoan igitzean eta iñoiz alkar jo egin gabe? Ba-dago argizii inta bat o ezaz azalpenen bat ikusteko; Orogen erakarpenaren legea. Lege onek diñoenez izadian eta zabaldean dagoen izakiak alkar erakartzen dute, berez eta neu i baten arauz. Erakarpena ez da berdin gorputz guztietan eta beren kaizua nolakoa dan orela izaten da, kaizua aundia bada erakarpena ere aundia, ta txikia izan ezker txikia be erakarpena, alkartasun ertsian beti. Eta orela izatekotan zabaldean igitzen dan izar eta izarbela bakoitzak bere kaizu berezia euki bear du, beste baten inguruan eta bere tartean beti ibili al-izateko.

Benetan a itzekoa ori ere. Nola dauka bakoitzak ezinbestekoa zayon bere kaizua?, bear-bea ezkoa zayon kaizua? Guziaz antolatu zuenak emandakoa eskierki. Ora or, beraz, erakarpena, kaizua ta ibjlera egokiro ta zeatzez ongienik antolatuta.

Guziaz da a iga ia sorkaridian zear, gizona guztiz txundituta geratzeko aña. Ona emen begiratzekoak diran beste bi azpegi: Ibileraren lastertasuna da bat; nola dabilzte gorputzak oren lastertasunaz?, nundik datorkien edo eltzen zayen oí-ela ibiltzeko bear-beara dan inda a?, indar oso aundi ori noraezekoa baitzaye arin-arin ibiltzeko. Erakarpena nolabait ulertu diteke kaizuz gogoratzean, baña jbilera ta onen lastertasuna nola ulertu?, gañera ibileraz ta aundia dan lastertasunaz ibiltzen milaka-izar ari baitira, eta oso beara baita ortarako indar oso aundia izatea; nolakoa da indaí- ori? Ñork azaldu oren ulergaitza dan ori?

Beste aldetik orela ibiltzean mil aka ta mil aka izar diralarik nola ez dute iñoiz alka jo edo tanka egin?; kirian-kirian ibili bear baita orela ari-izateko; nork jari ta antolatu ditu ajnbeste izar ain a iga ia dan kiri ortan? ezkutuki ori ere gizonarentzat, egitan sorkaridian guretzat osoa orixe baita, ezkutukia. Ezin ukatu, ala are, sorkaridian guztia kirian ja ita dagoela ta kirian be dabilel a.

Ba-dago oindiño, beste zerbait begiratzeko: Zerez dagoz egiñak iza ak?, saldar, ubil eta laspelezko gayaz?, irutarikoak eiki? Orela dirudi, ori buruz jakin

al-izan dana oña iz arturik. Gure izarbel-taldearen burua dan izarra, gure eguzkia osotzen duten metalak, ariak eta laspelak Ludi'an ezagutzen ditugunak berak edo dira, baña guziak pizturik bide dagoz, gar izuga ietan edo bildurik; eta gar oyetatik edo piztuta dagoen guzitik argi ta beroa jalgitzen dira, izarbel guzietaraño ta gure Ludi'raño ere eltzen diranak, jakiña, gure bizirako beara dan neu ian.

Baña orela guztia pizturik baldin badago, ez al dira ango gayak suntzitzen mil aka ta mil aka urteetan barna su artan e etzen egin ondoren?, orixe baita suaren eragipena beti. Nork piztu zuen su izugari ori?, edo nola piztu zan? Eta ustekoa danez izar guztiak bide dagoz berdin eginda; orela izartegi guzia sutan dagoela esan diteke edo milaka ta milaka zuziz beteta, ta berotuta, ta argituta. Dana dala bero ta argi oyek gureganaño eltzen dira egokia dan neu ian eta oyen esker be bizi gera Ludi ontan. Bide batez erakarpen oso aundia aguzkijan bertan, izarbel guztiak bere inguruan ibiltzeko neu j egokian be. Eta eguzkia ere ez bide dago geldirik, oartu baita norabait igitzen dala, izarbel guztiak berarekin eramaten.

Izuga ia da benetan sorkaridia ta bertan dagoen guztia ere siñismenak esaten digunez ba-dakigu guzia Yainkoa'k egiña dala; beraz, ori izuga ia bada, ben-benetan gelga iagoa izan bear gureztat Yainkoa bera. Eta bidezkoa da, ondorioz, Yainkoa betikoa dala ustea; osterantzean Yainkoa nork edo nork edo beste zerk egin ote zuen galdetu bear-izango genuke; ta nor edo zer oyek be besteste nork edo beste zerk egin ote zuen galdetzea bidezkoa dirudi. Ori eziña edo da ta bidezkoena izan bear betikoa dan norbaiteaz oldoztea, Yainkoa'z noski. Eta sorkaridijan dagozen ainbeste gauza izuga jak begiratzean, nola ez oldoztu Yainkoa dala?, nola ez Bera siñistu? Ezinbestekoa noski siñismen ori, gurea dan eta ororena dan bizia nolabait ulertzeko; ta gure aldetik, apaltasunez, orixe da gogotik siñisten duguna.

U estarazu'ta Andoni

(Gure lankide zintzo, argi eta kezkatia, gaisoaldi baten ondoren, Azilla'ren 21-an í I zan. (G. B.)

Bere il oroitzta eta berak il aurrez idatzitako azken naiak argi erakusten dute bere gizon eta euskal izatea. Benetan jatorra bere azken naia.

Euskerazaintzak gogoan edukiko du beti "Umandi".

AZKEN NAIA

"Nire naya E oma'ko Eliza Katoliko ta Bidali'enaren barnean iltzea da. Azken igurtzia artu ondoren, eta Yainkoaren e ukia il eta gero ere lortzeko itzaropenean.

Ene bizian barna burutu al-izan ditudan nere lan txikiak, Euzkadi nire abeharentzat nolabait onuragahák izan ditezken, ene yoran bizienak age arazi nai ditut; eta Yainkoa'ri Aren eskubidezkoak diran azkatasuna ta buru-jabetzea eman dezaizkiola, aten eta aten, eskatzen diot, aren bizia bere egiazko euzkal-gogoaz antolatu al-dezaken, bere izkuntza dan euskeraren edatze osoaz, euzkal-bizia agitan izan dedin ezinbesteko bidea dalarik.

Eta anayak ditudan euzkaldun guziai, JEL'en alka ekin bizi al-izateko, aletin guztiak egin ditzatela barne-barnetik eskatzen diet, bere egunean gure irakasle ta ereduia izan zan Arana Go ri'ta Sabin'ek esondatu zuenez, gure Euzkadi'ren bizia zuzendu ta eusteko, bide ori ja aitzean baka ik dutela etsi-etsita nagoelarik".

U estarazu'ta Andoni

"UMANDI"REN OROITZAPENETAN

Andoni Urrestarazu "Umandi" il da. Albiste garratza Euskalerrria ta euskalza-
le guztientzat, eriotz ori gaiñ-gaiñezko galera zaigulako.

Orain 91 urte dala, Araia'n jaio zan. Gaztetasunean, irakasle bikaiñen eskuz
eta gogo aundiz, Madrid'en ta Donostia'n euskera ikasi zuan. Atoren izkuntza
bere "andregaiia" bilakatu zan, eta geroztik Andoni'ren ordurik geienak berari
leiatsu ta txeraz eskeiñi zizkjon. Ezkontza maitekorrak bere fruitua ekoiztu
zuan, "Umandi" euskerazko irakasle bikaiña biurtzen.

Erbestaldian, Paris'en, 1955'n bere lenengo Euskal Eliztia erderaz argjtaru-
tu zuan. Arrakasta itzala lortu zuan, eta berari esker, euskalzale askok euskal-
dunberritu ziran, aien artean katalandar ospetsua Salvador Espriu (1913-87).
Iru argitaldi izan ditu. 1977'n, "Betebide" bi euren galartzuekin sortu zitun,
ikaspidea erreztatzeko.

1978'garrenetik aurrera, euskeraz eta erderazko idaztiño batzuk duan ba-
natu ditu; beren gaiak, Araba ta Euskalerrri'ko kondaira ta arloak.

1985'garrenean, Ajuria aretoan, aundikjro aurkeztu zizkigun "Euzko Irazkjin-
tza" ta "Aurren Izkuntza", lengo idazlanen bilduma. Egillearen euskerea ezti-
ria izan zitzaigun.

Urrengo urtean, ots aundiz, bere eleberri "'Gentza Bearrean" Rosa M.^a
Agudo jakintsuak aurkeztu zigun, bi izkuntzetan ikasketa trebe ta sakon bat
idaztiari buruz oparitzen. Ene eritziz, gure liburu on-onen artean Euskal Elertian
izango dala. Gaia ondo aukeratuta da. Agertzen diran gizakien jarduera oso
logiko ta trebeki bideratua, ta amaiera berebizikoa da. Euskalki guziak sakonki
xamar mendean ezpaditugu, iztegi on bat ondoan premiñazkoa zaigu. Pasarte
askotan Andoni'k eta Euskerak alkarrekin jolasten dute: bien artean len-mailla-
ko Bertsolari-txapelketa antzeko bat antolatzen dabe. Eta zelakoa gero! Ber-
tso bat bikaiña ba-da, urrengoa, bezin iaioa; ta alako pozgarri ta antzezko jo-
kaera luzaro jarraitzen da, irakurlearen arima xoramen, lilluraz gaiñezkatzen.
Andonj'ren goi-argia ta olerti-ixuria bein da berrjz atsegiñaz dabilta. Bere bio-
tztetiko Azparrena aintzaz betikotuko du menderen mendetan pitxi onen bitar-
tez.

Bere 971 orrialdeko "Euskal Elizti", Gasteiz'ko Alkartetxean, 1989'n aurkez-
tu nuan. Euskeraz bakarrik idatzita dago, ta ariketak ezik, gjtxi gorabera, lena-
go erderaz egin eban berbera da.

Bere arreba Tere ta Gaspar Erkizia'ren laguntza onuratsuaz, buru-belarri ibi-
lli da "Asmo Iztegia" (D. Ideológico) burutzeko. Zoritzarrez, ez du lortu bere az-
ken ametsa betetzea.

BERE IDAZLANEN BERRIZGARRIAK.– A) Izkuntz Garbia: erderakadak ga-
lerazten ditu, itz-elkartze ta eratortzearen arauak ongi ezagutzen bai ditu...

B) Izkuntz Aberatsa: Euskalki guztietako berbak erabiltzen dauzelako, eus-
keldun arruntendako, Umandi'ren iztegia sarritan gatxa da.

C) Koblari ta olerkarien kutsu erakarkor: 1.700 bertso ta geigok apañtzen
dute bere "Gentza Bearrean".


D) Kristautasun eta Abertzaletasun demokratikoa: Bere ekintza guztietan biak oiñarri sendoak dira.

E) Idazkera Zentzuduna: Idazlan guztietan, "antxiñako" Euskaltzaindian irrikatuta "batua osotua" iztegi ta idazkeran erabiltzen dau.

BERE XEDEA EUSKALERRIARENTZAT.- EUSKERAREN bidez, euskal GOGO lortzea; eta euskal GOGOaren bitartez, EUSKAL BIZIA. Yainkoari ta gure arbasoei esker, euskera gureganaño bizirik eldu dalako, geure ardura bizi orri indarra ematea izango da.

EUSKERARI DAGOKIONEZ, Andoni langille porrokatua agertzen yaku, eta gajñera, pentsalari sakon, trebe, azkar, logikadun eta aurkerazale bere ekintzan. Euskal yakintza ta euskal elertiaren alorrean, erraldoi goren bat da ta bein betiko izango da. Bere bizitza ez da alperrikakoa izan, eredugarria, eman-korra, ta oso zaila ainbatzeko baizik. Euskotar eta euskaldun jatorrentzat IZPI-LLU ta ERAGINGARRI bat izan dakieke.

Exea'tar Yosu (Gasteiz)



UBESTARAZU LANDAZABAL'da ANDONI
(UMANDI)
GOYAN BEGO

1902'ko uztala'ren 16'gn.
jaya zan, iltzeko.

1993'ko azila'ren 21'gn.
il zan, bizi-izateko.

Otoi bat bere arimaren alde, aten!

*«E uki zakizkit, Yaabe, aula naiz-eta;
senda nazazu, ezu -ikaraz nago-ta».*

(Eresiak: 6-3)

Egin bedi zure naya donokian bezela Lu-
di'an ere.

Orain eta beti.



ERRI-EUZKERAREN AZTERKETA

- Kasetan artu danaren idazketa
- Oarrak
- Esaldien azterketa

Etxalar'ko Apezetxea'tar Pedro apaiz jaunak eta Ajesta'tar Anunciación (Anuntxi) andereak izandako elkar-izketa.

Artzelusitar Amale'k jaso.

Anuntxi Etxalar'darra da baño luzaroan Saran bizi izana.

—Ta orduan, zure txikitako, etxeko egoera, familia, lana, eskola, nola izandu zen? ola pixka bat...

—Bai, oso zera... nekosua, oso nekosua; gure etxia ezta zelaya, ordun, as-teko, gero, familia aundia giñen eta lanian...

—Zenbat senide ziñaten?

—Zortzi senide eta aunitz zeertu dugu, nekosua izigarri lana ta nik eztakit... xeetasunak asitzen ba gara erraten, lurrak...

—Eskola, eskolan noiz arte ibilli zjiñen?

—A! eskuelan, eskuelan!

—Noiz asi ta noiz arte?

—Noiz arte? la ba...

—Pixka bat adierazj zazu laneko martxa.

—Bai, zortzi urtetan ni asi nitzen, zeren bai nituen nere anaiek sekuritatez pixkat beranduxeago, zeren lenbizikoek ziren eskola yoan bear zutenak, gero ekin laguntzekin joan nitzen pixkat beranduxeago. Zortxi urdan izandu nitzen eskuelan, beño amatxi bai genuen eta amatxikin, bai... zera... katexismua eta bai eskolan leitzen, leitzen ba genekien sinplemente itxetikan ateri baño len.

—A! zeñek erakutsita?

—Amatxik, gure amatxik! Ezta oraingoa!

—Baña ori etxe guzitan gertatuko zen?

—Bai, ori etxe guzitan, ori etxe guzitan. Zeren guk bai genekien amabi urte-tako denak, oai eta puntuan ere, kontuan, bai eta belakin, bela argia.

—Eta zera... leitzen ikasi?

—Leitzen ikasi... zertatik... ba kartilla...

A kartilla! eskolako kartilla. AEIO U, oritan esan eta nere ama eta beno lei-tzen multxua, leitzen ikasi ta...

—Amatxik ba zun oiturarik leitzeko?

—Bai, bai bai, asko bañan izigarriya zen religiosa eta aren lektura guziyak elizakoak ziren, denak, denak, denak elizakuak, otoitzak eta denak, gu eskola yoan orduko denak bai genekien eta katexima biar dun bezala denbo etako bezala denak...

— Etxian dena?

—Bai etxian dena, ta errosarioa ba zen berdin eta ola asi gara, ola asi gara eta gero gu joan; ba'dakit, amatxik ba zizkian koltxa ederrak eiten eta ba zizkian jersek... iltzelaikan, iltzan 96 urtetan iltzen eta jertse bat berak eiña, txanpiña zeezkua, ardillezkua, beltza, beno marrona bezala esaten die beltza, ardi beltzenak eta arekin ein, berak eiña ta ariya, berak ein jertse eta erdiya txanpiñak eiña iltzen. Eta galtzetiñak ere bai, berak egin ariya.

—II baño antxiñeko egunetan egiten ari zen?

—Adin ortan!... ta zorionamente. Orañdik otoitzak, zea, ta loa arñdu zitzailako eta ola orduan itentzuen, eta zetu, arrosarioyua erran, erran, pixkat ta arrosarioyua erran ta lo artzentzen arrosariyuarekin.

Olxaxen gure amatxikin eta kito. Arekin, amatxikin asiyak gara, ya denak etxian, denak sukalde berian, baña amatxik gure gain... aurrak aitz yende asiyek... aurrak aitz ondo asiyak gara, erran diteke mundu guzik bezala lan asko iñez e! baña ola ala izan dire eta amatxik guri begiratzen zigun aski eta yanak... dena, dena, dena.

Baño arek gu gu ogei urtetan eta oarñdik yeikitzen zen, ia katarrua baldin ba genuen, yeikitzen zen amatxi, zen genuen an zera bat, aundi bat, kuarto aundi bat ta ziren iru goatze eta bi aizpa baten eta bertse bi aizpa bertse bation ta amatxi berian. Gero rekruak izaten genituen ta andik kontuak eta gauzak... Ba ziren e! nere aizpak. Frantziku orrek, bueno "maravillas" iten zituen, eta zeak, mañanitas, ooitzen naiz. Baño eskaparatia jartzeko bezala, zikindu gabe e? zikindu gabe, beeledin gañera, nik eztakit nola diteken ori.

—Eskolan asi zazpi urtetan eta noiz arte?

—Noiz arte, noiz arte... ori tartian e? Badie iratzia pikatzia badie belardian aritziak, badie itzain mutillak eta zea lurrian ari gealikan eta ,manduekin lurra altxatzen aurrak kenduta (?) eta zera... sariak eta azpian izaten zuen sariak eta gantxu bat eta ustutzen zen bera eta bear den malda baita gure landa, eiten zuen azpitik goiti eraman eta goxatu, ustu ta berriz beiti ta lana guztiyak bear bada, nik eztakit errateko zenbat eta eta urtian zenbat, zenbat denbora yoan giñan neguan, claro, yoan giñan ara eta amabi urtik arte....

—Zu orain onetaz aparte, orain gogoratu zaite beste egun batez. Zergatik eztidazu kontatzen, astegun batez, zuek ba, ori, amabi urtetan egiten zenuten eguneroko programa: noiz yeiki, gero zer egin, gero zer egin ta, goiti beiti, egun normal batez.

—Bai, bon, nik, goartzen naizena, oai, nik nai nuen, nai nuen, atsaldetan ere noiznai eta zaarrak ekarri, etorko litezke edo kafesne bat artzeko edo txokolata bat eiteko. Nik eztet erraten, dedana, eztet abrigo pielentzat... eztut bear olakoikan sentitzen. Bueno... orduan, ara, noiz nai, neronek e? oraindikan prestatuko nuke olako gauz batzuek eta gero kartetan aritzeko, partxis ta zera, domino ta bueno gure etxian badira denak, denak baña ori die gure rekrua bada. Ara, gure amatxik ba'zekien denetan, bai musian, musian ederki, edozein bezala eta puntuan eta brixkan ta beno, ta ta dena, makiñabat eta klase; eta oaingo modernuk ez, oik ez, baña lenokuak denak. Etan aritu, baño suak bezala e?, serioski aritzen zen. Denak badakite gure etxian, oyek! eta

emen ori du falta; eztaki nork ere, nork ere, ez punttuan ez brixkan eta zerian partxisan... eztakite bueno...

— A eztakite ez e?

—Zer egin duzu aurrin ta lana, guk gure etxian egin degu lana guk, gauz bat, claro, ni yoan nitzan, ni yoan nitzan, neskez batzuk ola suerta ta eraman ninuten Sara'ra, bono...

— Ori badakit, baño konta zaiguzu egun bat, goizian ze ordutan yeiki...?

—Bueno bai, irringarriak dire... noiz yeiki, eskolako tenorian yeiki bartzen, zeren eta txikixkuak edo bueno, eskolako tenorian yoan bear da; oñez ibiltzen giñan beti, beti, bazkaltzera etxerat ebai ara normala eta zortzi... noiz asiko zen eskola? zortzi t'erditan? Njk... ez naiz seur nola zen ordua. Bai ola, ta orduan asteko, beartzen yeiki eta amatxo oyuka asiko zen zazpietako bederen, edo zoazi noiz asiko zen oyuka, ez muitzen; laneko berdin, laneko tenoria bazan; baño eskolako beti "zeto" ta gero aitze zen eta zeakin eta zea... trapu multxua, ibiltzen zuna maya garbitzeko ta ibiltzen zuna ta arekin estalkia kendu ta busti arekin ta orduan danak irrixtan fuera! segiduan. Baño ola aziyak gara eta gero gan zaitez eskolara eskolatikan berriz etxera, etxera, gero yaten genun, bear bada, bear bada, gure etxian ba zen posibilidadea geixio zenbait etxetan baño, bear bada orrebai, orirebai zen... bazen pixkat eta bagintun sobera batzuk izaten genitun Doniane'n, gero beste etxeko ixtorik, ori, etxeko lana, erran zaitut... beti osua... agitz luzia da, ta orduan gantzitzeko ta istorio oetan bear bada sosaekin eiten genun pixkat, an orduan gauza merke izaten zen izigarri. Beno ori dala medio ta gero, baño bertze edozein bezala. Oain erraten dutan arritzen zate; bai, zea... aitz gaizki bizi gera! Bueno, non bizitu zazte? ze ikusi? Nik erraten zaituztet ni nola bizitu naizen nere etxean. Ba, eosteko patata prexituak edo tomatiak eta txingarra; aoidik gure etxian iltzen zien bi zerri bederen, bi zerri, baño bat itentzen lekuak... igual batez eiten zutenak baño bueno jeneralin iten zan e? iten zan, zen orai ibiltzen baita etxian ta bueno tomate pixkat egin jamon puxkat gero opilla e? gure tenori ortakuak gara eta opillak eta ogia baldin bazen pixkat... baño gure amatxik opilla iten zun erki; bueno pues ura tomatiarekin, balinbazen, alan etzun kalteiten, porque etzen yaten aski orixe da gertatzen; ta oain danak kalte eiten dutela ta nik eztakit zer, baa! gaizki bizi nik orra guk ola, ta patata prexituakin baakit nik eta zortzi bai giñan eta patata prexitudekin arroltza erdiya bakoitxeri. Patata prexitu puxkat t'ua zerri uriñakin iña, zerri uriñakin eiña, etzen bertzerik, oliva aa! eltzezariri pixkat kutxara eltzariri, bueno ura zerri uriñakin eiña, patata prexitek eta arroltzen erdiya, bestek saldu beer baitz;jen azukrea eosteko ta zerbaite erosteko eta bueno, gero gure amak enintzun, baitzen esnia poliki xamar, baño gure etxian esnia izateko Bordan saltzeko duna, gañeko bordaldian, orain saltzeko duna, Peña Plata aldian, dana. An iten ziren tenporadak; orduan adios eskola!

—Aaa an bizi!

—Bizi, an bertan bizi eta illabete bat edo bida an bizi eta zeak aterji, zera... azpiyak ateri, leen eta gorotzia ein gorotzak, gorotzak ateratu, nabaitzen du Frantzi'ko maixuak, nabaitzen du. Gu... ni labrantzarekin izitu izitua lanen; lana asko ta asko iña, zen beyak izaten genituen, zortzi bei esnedunak denbora etako, baño aren laguntzarekin, andikan ekarri, nola ekarri, nola ekarri! Baño zer komediak andik ekartzeko! irazokon (?) barna buelta eman bear zituztela, eien barna, nik eztakit nun barna ekartzeko, oek danak nere anayak eta aizpa

gaztienak ere bai, ni denbora aetan nintzen Sara'n, biño olaxe asi lanin, gero bera Sara'tik etorri nitzaleikan gauza bera, gauza bera eta segitu nun gauza bera eta anayak oraindik yoantziren Frantzi'ra gero eta baño modu berian. Eta andikan, eiña belarrak, goizeko bostako yoan, beno etortze bainitz etxera, nai baldinbanun etxera etorri e? eta bostako yeki ta arat, belar pikatzera, belar pikatzera; gizonal bezal bezala emakumiak, denok baten, eta gero eñña zera... nik eztakit, bueno, ori guziya. Gure amatxi yoaten ze gurekin, ni oroitzen naiz, beyak zaintzera ola, yoan eta beyak zaintzen... etzen denak batian ematen aal... Eztiraz oaingo kontuak e? Arron diferentiak! eta denak batian be zaindu ber zirela, eta oroitze naiz e, arribu gañian oaindikan ainbeste quadro ta, eta bein zain eta bei batek, gero ez bai genun utzi biar eta zera, ba zen geobein zain eta bei batek, gero ez bai genun utzi biar eta zera, ba zen geonek genun kulpa ura zen etxian aziya ta beti yostetan aekin, zera ta ola ta yoka; nik artu arri batekin ta bota ta berriz artu ta bota ta etzian deuse egin, etzian suertu; beste bei zar batek ikusi zun eta ari zan gixa molestatu zun bera, eztakit ta artu ta biok yoka asi ziren ta ni orduan eskautu, eskautu; olaxe bizituak gera gu, olaxe bizitu, beste asko izanzen dira deuse estutenak ikasi asko nai bauzu, baño trankilluo bizitu dienak, Eztiere etxetik munitu ta bertze modu batian; gurasuk olakuak izanta. Nere amare karrikako umia zen, bai baño kosta zitzayon e! geroi umatu (?) zen.

—Noiz yoan ziñen Sara'ra?

—Ni Sara'ra amairu urtetan, ta gero akabo, ni an lanian aitu naiz e! lanian.

—Ta Sara'ra zertzela ta nola atera ziñen?

—Bueno... ori, andikan etorri?

—Ez, ez, yoan, yoan.

—A! yoan, yoan bida, orire luzia da, eta yoan nitzen, zeekin, etorr z... an eon nitzen (?) neskato Arrun Borda'ko lenoko umia, bueno lenoko... Gabriel ezautzen duzu?

—Bai.

—Orren aman aizpa, bueno aman aizpa eta... Dolores. Eta orren aizpa yoan zen Ameriketa'ra; gure osaba, aman anal bat yoan zen Ameriketa'ra, Norte Amerika'ra, Niuyor'eraeta yoan zen Norteamerika'ra eta arekin batian, ola iten baizien, beti grupuan yoaten ziren ta arekin batin yoan zen ori... Angelina, aman aizpa, aizpa ori; eta ura an eona zen neskato, ta gero relazioniak, relazionia ba zuten, eskritzen zioten zen adiña bera ziren, ori oai erraiten duten, ni yoan nitzen neskazar ori eta ura, eta zuten leno, nik uste zuten tienda ta ola, zuten an ni yoan orduko etzen deusere, baña an zuten lekua. Eta gero arek, relazionekin, arek inzion bixita, ba zun neskato bat ta yoan zitzaion... "o lo que sea", eztakit ze elizetan ezkondu, nik uste; eta aek eskritu zion, zuk bauzu Dolores an zelikan beste aizpak ere ikustera ta zuk ba ziñun Dolores eta ezkondua lrun'an, ta aren nexka ikusten det tamañu ori biar dutela izan eta nai nuke nexka bat eta karrikatikan karnizerira bialtzeko ta da or; distante, len Bizkai eztakit bakizun mapan arkitzeko, or gañeko auzo ortan, claro abeets etxia zen nai bauzu, baño oain aski trixtia da, oain denak abestu die; bueno gero... ori munduko legia, oraingua bueno pues orduan arei eskritu ta egintzan andikan etorri, andik etorri zan ori eskritu ondolik ta aguro xamar ta Azparren barrenat ibilli zen ta ta okupatu ziren aizpen aurrak; eta gero goatu ekeri. ne briel'en amari ta, or Antxipi'ko Borda'n ba dire neskak, baño eztute nai izanzen, eztute etsikore, baña ni nitzen... larratan bearba bestiak baño geigo aitu naiz,

baña zaarrena nitzen nexkatan zaarrena eta erraiten... gure amak erraiten zuen: "Eztu egundafio ikusi ez ori galtzetaiñ zikiñekin yoaten eta eskolara". Nik garbitu bear nitun duaikbe, bertze norbaitenak eiten izango nituen, eztaukat sobera goguan ori baño ola; ta gero "la primera" pues a "la primera", beaz, bestikiri bearke zen segitu; ba dugu distantzia, naiz segidu xamarrek gu garen, sortzian ez ba dugu gure aizpa, baño ori da aizparik gaztiena, Frantzia'n bizi dan Maritxu e? Diferentzi gogorra, orduan ba zen ori beintzat, ori, eskolan...

— Bueno Sara'ra yoantziñen?

— Bai, eta yoan nitzen, bueno ez, beida; eta gero, orduan etorri ziren gure etxerat, claro, gure amantzat etzen ezaguna, zeren ango umia zen, Arrun Borda'ko umia, yoana gañera, bere amarekin yoana, nere aman anayekin yoana, ta orduan yoan zen bizitzera, ezkondua. Eta amabartz... ooitzen naiz eerki izena ta guziya, baakit gure etxian gertatua, elkarrekin ateri eta gero arek... eta etorri ziren ta "bai, ta aurrak dire ta..." "Bai, aurre nai do, aurre na; do" eta ni segiduan, atrevida izana sortzetik duike, eta "Ñik yoan nai dut, nik yoan nai dut" eta bai baño nola? Ta amak zeik ez... aur bat eta gero goatzen zen... eta yoan arat eta aurre libre libre, bakarrik arat! Eta gu izigarrik izandu garata eta antxe kapapian egonduek, bueno Jesus, ta nola! Bueno yoan nitzenazkenik, yoan nitzen ikustea ta bayetz! oi baytz! Moreno moreno eman nitzen, erdi belza ta erdi. Beti euzkitan ta beti gure etxia aitz sua bezala da eguzkia ta gero erramen zaitut egiten al dena aten lurra altxatu, denden dena, ni yoan bitartin denak berdin eozein bezala. Ooitzen naiz Oixmendi'ko Borda, erori da oain ta ura, andre ura, Feliziana Edora zen amakin laguna eiten zun; bueno ba zuten tratua, aundiya, eta arek egunero erraten: "Déjame un chico" Bai, erdera geigo zuten ek ta erdelduna artu zun, eztakit nundikan... Sunbil'dikan etorri zan eta mutikoa... bai baño ezta. Il da mutiko ura; mutiko eerra zen ura eta ez eskolatu; baño neka, biali zaitut nexka zaarrena ta nik oai bear ... ordun izanen dut orrena ta zea. Euskalduna baldin ba da ikusiko dugu. Eta biartzien biyak; nere etxeko lanak aitz ongi egin bear ziren eta beartzien biyak. "ikuskun zeñen eerki konponduko garen" ta gero ni endu nitzen itzain-mutil Orizmendi'ko Bordan itzain-mutil" o sea que ni ni, pasaporte...

— Ta ori, Sara' ra yoan al ziñaten?

— Sara'ra yoan nitzenian amabi urte, amairugarrenen yoan nitzen ni, amabi urtetan; bueno ta gero yoan nitzen Sara'ra ta yoantzen nere ama claro, esantzin: bia, nik eztut deseiten deusere, beak ori nai du ta ia konpontzen zeaten; la eiten zaitun zerbait serbizio eta nik "colegio"ko eztut, eta "yo ambicionaba", nik "colegiva" nai; tokatzen zitzaitan, nai nuen, nai nuen nik, nere ambizionea ori baño deuserez. Eta gero eztut nik kolegioko zeeikan, aalik. Eta orduan orra or duzu, nik eztut deus desitzen irabazia, biño ama gazti ba ziñake bezala kontuzazu, onela ta onelako ambientekuk gera gu ta nai dut ola seitzia. Egundafio enaiz ni aten eta "tilin tilin de la noche"; beandu itentzen tenore at eta anyelusa e?, anyelusiako itxi n biar da, eta gero nolakin eta zer, norbaiten mutillen bat aldin ba zen ta arei iruitzen zayonean, fuera!; bera uren billa yoaten zelaik, auzun ba ziren mutikoak o! !rria eiten ganun, nola! Eta mutikoak... ta oi! zer dabil anka okertuk... Etorri zure etxera! ta ur ori ta... nik agudo beartut gauzak! Baño etzen ori! etzen kuestionea, amari itz emandakua beartzen bete, olaxe...

— Zenbat denbora ein zenuen?

- Ein nituen emezortzi urtek arte, an.

- A! emezortzi urte arte?

- Gero ikasi nuen baterek uste gabe, ta periodikua leitzen ta emen frantze-
sa, bai, mutiko bat ba zen, eken atera, mutil koxkor bat eskolan zabillena, ta
aurrekin, pues nire aurra nitzen, amairu amalau urteko zea, ta eskolako aurrari
zen eken lokatera, bueno eken etxian bizi zena, beste etxe baitan bizi zen andik
finka eta beste etxe batian bizi zena, eta andik pasatu beartzuen, eta gero gel-
ditzen zen eta maite zuten aik jigarri Aurora; Koko erraiten zioten ta Koko ta
Koko "no sé qué" bueno, noizbait bazkaltzen ta an izaten zen gue etxian, eta
aren... zeak... de buena, ta aren eskolko talerrak... ba, in biarrak eskolakuak,
denak erakusten zian eta ola nik ikasi nitun... beñepein frantzesez leitzen bein-
tzat ta gero olaxe egun batin ooitzen naiz eta... Eta gero euskaldunak ziran "ra-
so" e? Anai xarak ere bai zitun, beste bi anai xaarrokuak, bera baño xaarrokuak
eta zerbait erran bear etzutel... nik aditzia gonbeni etzena, ordun iten zuten
frantzesez, baño zen arrunt euskaldun bezela eta nik ordun... ola! nik eztakit...
gauzak paatzera eta yoan sukaldera ta emen, ta orra! "un bon pla" errateiot!
irriz ordu erdi bat, aixax...l "Au asituk frantzeza jkaste, nik ustel ta etzakiten or-
duko ta gero pasatzen bera, beste gauz bat eta istorioak orduko denboretako
ni leitzen asiak; aoindekan ooitzen naiz eerki eta zera... iltzuna gurasoa, bere gu-
rasuk, ama ta iltzitun; ama dendin bai iltzuen ta gero aren biziya beti elizan, eli-
zan ta ooitzen naiz, zea, aen juiziyua; bel arek erranian ooitze naiz, arek erran
baitut nik zenbat gauz eta bai, ori beartzuten segiduan, eztakit denbora aitan
"pena de muerte" izanentzen baño ori, ori nork iten du gurasoekin! Ori ezta iten!
Bueno ta "ezta eztakizu zuk deuse! "baño olakuak... juizio... ori, ortan etzan ain
gustora ateatzen juizioa, "Beartuzte ta olakuak!" Zen "del Mundo" zen, beartuz-
te ta olakuak! Nola illentuzte juezentzat zen aserre; oik guziyak. Oik leitzen ta
"novela" rebai, etortzen zen periodikun, "La Gironde" zen ura, "La Gironde" bue-
no; periodiku aundi bat... akabatu zen ta aretan, ta "novela", ixtorio, ixtorio ek
letzen ikasi eten laguntza zen neretzat; tenore artako, adiña nun eiteko leitzen,
eta nik ikasi leitzen. Traduzituko zaitut naizun liburu guziya, baño oai eskribitu
ez, "porque" aitz difizila da eta "ortografía" frantzeza, baño... olaxe...

- Zuretzat, Sara'n nola, bueno momentu onetatik begiraturuz, an zuretzat
ikasi zenuena, zer ikasi zenuen zuk? Orain bai aipatu duzu zera, leitze ori, ba-
ño orretzaz aparte ze... lanean...

- Dena, dena...

- Lanean ikasi ta...

- Denetatik, lana etxian dena, ba nekien bokata eiten, denbora eitako bo-
kata eiten e? eta gero dena; gure etxekua ere kontatuko zaitut gure amatxin...
diferenta, ura autsekin ta ola iten duna e? Orj aitz zaarrek dakite bakarrjk, ba-
ño Frantziya'n...

- Sara'n ola, gauza diferente bezela emendik, zuk ikasia ordun, urte oitan,
ze, ze...

- Zer ikasia?

- Bai, lana, lana, etxera eramaten edo...

- Etxea eramaten bai. Bueno nere etxetikan diferentzia bai, gero etzen gixa
berekio yendia; bakizu oik aberats bezela bizi ziren, orretan bada diferentzia
aundia. Orduan gero, arront diferente ikasi nuen nik, aunitz. Ta gero ordena
ikasten, gauzak... "cada cosa en su sitio, cada sitio para cada cosa", beno oik
denak nei aitz koste, gero etorrj nitzalajak etxera eta aizpakjn ta... ortziren ko-
medjak!

- Len bezela nai?
 - Ta len bezela, pixkat txokatzen giñan, eta nik ya eta ola, ta "un poco dictadora"... ta ortan utzitzen ninduten; ta gero, gero..., iru eguneko astu ziren! "La realidad estaba ahí y no en otro sitio": Ta gero beurek eerki oartu ziren ta denak oso punituak izan gera, denak berdin, denak berdin.
 - Bueno, au yoanen bai zaigu zinta antxiñera, gaurkoz bueno gero emezortzi urtetan etorri ziñen eta emen noiz arte?
 - Emen, etorri nitzen ni berriz yoateko e? berriz yoateko. Etorri nitzen bakarrikan an, etxe aretan artutzen zuten... eta modistila bat "de remiendos"; dena, gauzak zetzeko, zarrak konpontzeko.
- Eitentzuten eta emazteki xaar bat artutzen zuten eta ola zen etxetako den-daria eta orduan ori eiteko, lan ori iteko, yosten ez zakiten an iñork ere; yosten guttiago da an emen baño, bai, guttiyo, guttiyo, etxetan, etxetan.

1992'ngo. Urrilla

OAR OROKORRA

Ajesta'tar Anunciación -Anuntxi- andereak urte ditu. Etxalar'tarra da, baiña aldi luzean Saran bizi izana; bere jzkera beraz, bi aldetako da.

Bere oguzkera ondo adierazteko Y izkia erabilli bear izan det.

Izkera nastu xamarra erabiltzen du. Esaldiak asi ta bukatu gabe utzi... gauzak berresan... eta orrelakoak alegia. Joskera aztertzea ez da beraz erreza.

Elkar-izketa au Apezetxea'tar Pedro, Etxalariko apaiz jaunak egiña da eta nik jaso.

OAR BEREZIAK

- | | |
|---------------------------------|---|
| Nekosua - | neketsua izango litzake. |
| Laneko martxa | Erdel itza. Errian zabaldu xamarra. |
| Zeren - | Esaldi aurrean, erdel joskera. Napparroa'n eta baita Laburdi'n ere erabillia. Batuak onartua. Lako atzizkia ta bai du edo baitu erabilli bear dira. |
| Lektura - | Erdel itza. Irakurketa da euzkeraz. |
| Leitzen - | Lengoa bezela erderatik artua; ala ere irakurri itza sartu xamarra dala derizkiot. |
| Ba zizkian - | Ba zekizkin esan nai du. |
| Zetu - | Au euzkaldun euzkaldunak asko erabiltzen dute. "zetu" "zera", "zertzeko" t.a. |
| Amatxik guri begiratzen zigan - | Esaldi ontan "begiratu" itzak "zaindu" esan nai du noski. aditza gaizki erabillia da beraz; "zigun" "gindun" esan bearrean. |
| Ziren iru goatze - | Joskera gaizki. Iru goatze ziren esan bear luke. |
| Goatzea - | Oya. Etxalar eta inguruko errietan orrela edo antzera esaten dute. |

Bon -	Au Saran ikasia izango du. Frantzerak da ta.
Tenorian -	Etxalar'en eta baita Laburdj'n ere esaten da. Ez det ikusten bere sorrera.
Beartzen yeiki -	Au ez da joskera ona nere iritziz, baiña Naparroa'n tankera ontakoak asko entzun ditut. "Egin du yan" adibidez.
Busti arekin -	Arekin busti izango litzake.
Erran zaitut -	Emen ere aditza gaizki. "Zaitut" "dizut"en orde.
Sobera -	Erdel itza baiña Naparroa'n euzkaldunak asko erabillia. Geyegi.
Jamon -	Erdel itza. Etxalar'en orrela esaten dute.
Nintzen Saran -	Saran nintzen litzake.
Eskautu -	Eskapatu. Au ere erderatik artua.
Molestatu -	Erderakada au ere asko erabiltzen da. Nekazarj aserrerazi, gogaitu, ereztatu. Itz auek erabilli bear ditugula derizkiot, polliki errian sartzeko.
Anbientekuak -	Lengoa bezela au ere erderakada. Gjurokoak, ingurukoak... Len bezela itz jator auek erabilli bear ditugu eta irakatsi, erdel itzak Euzkera itotzea naj ez ba degu.
Istorioak -	Berriz erdel-itza. Edestia euzkeraz. Batuan erabat onartua.
Leitzen -	Irakurtzen. Itz au sartzen ari dala iruditzen zait.
Bokata -	Garbiketa da noski. Donosti'n gobara esaten degu.
Punituak -	Frantzeratik artua. = zjgortua.
Lokatera -	Au ere Frantzeratik jasoa. = maisterra.
Paatzera -	Paratu, paatu. Etxalar eta inguruko errietan beintzat, asko erabiltzen dute. Frantzeratik jasoa noski. = jarrri.
Ezta oraingoa! -	Zoazi noiz asiko zen oyukal Esaldi jatorrak, nere ustez.

Zati batzuetan ez da erreza joskera aztertzea. Esaldia bukatu gabe utzi ta bestea asi... Esanaiaren aurretik aditza jarri baiña berresan...

"Iltzen 96 urtetan iltzen" - "Iltzuna gurasoa, bere gurasuk, ama ta iltzitun". adibidez.

OARRA: Ageri diran tarteak ulertezina izan zaizkidan itz eta esaldienak dira.

ARZELUSitar AMALE'k

JOSE VENTURA DE LANDA, IDAZLE EUSKELDUN ETA DEBAKO PARROKO

Begien aurrean daukat bere liburu bat izen-buru onekin: EUSKERAZKO LANDA-RAK. Ataria Mujika'tar Mateo'ren eskutik dator eta liburuaren izena onela osatzen da: EUSKERAZKO ITZALDIYAK. Gure Zeruko Ama Maria euskeraz goratuba. Elexpuru-tar anaïen echea. 1907.

"Bazkarango Andra Luisa-ri oroigarriya. Jose V. de Landa. Deva, 1907 garren urtian". Rubrika ere badu. Orrelaxe dio, berak bere eskuz idatzita, nik neure aurrean dedan aleak; baña, lana berbera Don Mateo'ri eskeiñita dator itz auekin:

"EUSKERAZKO LANDA-RAK izentzat ipiñi diotan lan chik; au, donkitzen diot, biotzetik ala ere, nere Meza berriyan lenb; ziko itzaldiya egoki egin zuan lagun maite, euskaldun azkar ta Apaiz jakintsu Beasain-go seme Mugica-tar Mateo Jaunari, Jose V de Landa. Deva-ko Animazaya. 1906 garren urtian".

Eskeintza oneri Itzaurre batekin erantzuten dio Mujika Urreztarazu, Gazte; ziko Kalonje jaunak, berba askoren artean onela esanez erderaz:

"La humildad está bien siempre y en todas partes... Lo que se ofrece, sin embargo, como LANDA-RAK no es tal, es un árbol robusto y lozano, frondoso y fructífero, florido y hermoso... en un magnifico "euskera"...".

Ondoren liburu bat aitatzen du: Orcaiztegui PA., "Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro". Página 62. Impr. de Eusebio López. Baña erririk ez dakar. Liburu orretatik artzen du Mujika Jaunak auxa:

"Dos graves males pesan actualmente sobre nuestra incomparable EUSKARIA y sobre su simpar idioma: 1/ No se sabe, no se posee el baskuence, no lo aprenden, ni b; jen, ni regularmente, siquiera los que a ello están más obligados por su sagrado ministerio. 2/ Sin poseerlo, sin saberlo, se habla, sin embargo, se predica y se enseña en baskuence tan mal que, con razón, ha podido formular uno de nuestros beneméritos vascófilos tan terrible y vergonzosa acusación como ésta: "Nosotros, los sacerdotes, tenemos muchas veces la culpa de que se eche a perder el baskuence".

"Pues, contra ese doble mal será no pequeño remedio el libro del Sr. Landa: los sacerdotes, los predicadores, los estudiantes aprenderán con su lectura a pensar y expresarse en baskuence correcto, armonioso, sonoro y suave; sabrán decir las cosas sin esas insoportables "erderizaciones" que desvirtúan todas las buenas cualidades del orador y de la oración sagrada.

"No sé lo que sucederá cuando los "implacables" vascófilos hagan pasar

por el estrecho tamiz de su crítica severa el juicio que he formado del primer libro del Sr. Cura de Deva; mientras tanto, permítaseme colocar al autor de EUSKERAZKO LANDA-RAK en la respetable y envidiable compañía de Guerrico, Astarloa, Aguirre, Axular, Lardizabal, Unzueta, Iturzaeta, Mendiburu, Moguel y tantos otros que en nuestros días sobresalen, iluminando con sus destellos el inimitable cielo de Basconja...

"Ahora sólo resta que el Euskerazko Landa-rak tenga favorable acogida entre nuestros venerables hermanos los Sacerdotes de Euskertia; esto será seguro presagio de que han de ver la luz pública las nuevas producciones que prepara el Sr. D. José Ventura de Landa, Cura de Deva. Dr. Mateo Múgica, canónigo lectoral. Vitoria 20 de octubre de 1906".

Mundu guztiak daki euskerazko lanik geienak, historian zear, apaizak eta praileak egin dituztela. Bitoria'ko Kalonje Mujika'k itzaurre au egin da bederatzire urte geroago, 1915'ean, eraiki zuten Euskera erakusteko katedra Gazteiz-Vitoria'ko Seminarjoan. Baña, 1924'an sortzen da, azpi-azpitik sortu ere, Academia Kardaberaz, Seminario orretan. Don Manuel Lekuona izango zan bertako gidari.

Aita Kardaberaz, Ernani'ko jesuïta bat izan zan, XVIII'garren eunkian Jesus'en Biotzaren zaletasuna euskaldunen artean zabaldu zuena. Mendiburu'ren lagun onek liburu asko atera zituen. Kardaberaz'en esana da auxe: "Euskerak burua jasotzea nai du Jainkoak". Orretxegaitik aukeratu zuten Kardaberaz beuren buruen ikuspegi bezala Gazteiziko apaizgaiek.

Amabi urte (1924-36) iraun zuen Academia Kardaberaz onek eta eunka apaizgaiek ikasi genduen euskeraz idazten Academia ori dala eta ez dala. Gerra itzalak ondoratu zuen. Ekainilleko (28-6-36), ogei egun gerra-aurreko "Euzkadj" egunerokoa daukat begjen aurrean. Bezperan, eta Lekeitio'ko errian, Euzko Olerti Eguna ospatu zan Azkuetarren oorez. Irabazleak: Otamendi eta Sukia alde batetik, eta D. Manuel Lekuona bestetik. Otamendi eta Sukia apaizgaiek ziran KARDABERAZ'koak; D. Manuel, berriz, Academi orren buru. Otamendi irabazlea, bereala il zitzaigun; Sukia bizirik degu. Elizako Kardenal da eta Madrid'eko Artzai izana.

KARDABERAZ ori berpiztu genduen 1970'garrenean eta KARDABERAZitik, beranduago, EUSKERAZAINTZA.

Mujika Kalonjea, Gotzai egingo zuten bere zoritxarrerako eta Barrutitik kanpora botea izango zan, gorago aitatu degun Gerra orretan. Desterruan ibilli ondoren, Zarautzen ilko zan larogitaka urteak gañean zituela.

Apaizei botatzen dien errua, ñez zan apaizena, apaizak egin zituen Seminarioena, baizik: ez bait zieten euskerarik erakutsi. Zekiten euskera, baserrian ikasi zuten, baserria izan zan-da Euskeraren Ikastola Nagusia eta bakarra.

Eurak ikasi zuten euskera ona zan; baña, euskera orrek erasoaldiak jaso zitun Latiñaren aldetik. Apaizgaiek Latiña ikasi zuten Seminarioan, Euskeraren orde; eta, Latiña ikasi ondoren, latiñez egin zituzten Filosofi eta Teologiako ikastaro guztiak. Ez da, bada, arritzeko "erderizaciones" beteak badaude aien

idazlan eta sermoiak. Auetako okerretatik ez da libratzen Axular berbera ere. Neretzako, ordea, okerrik aundiena auxe da: Zenbait idazle berriek Axular'engan ikasi dute euskeraz, eta okerrak ere bai; oker oiek sartzen dizkigute euskera uts ba'lira lez. Esate baterako, Zeren partikula, kausal bezala. Zeren ori, latin utsa da.

Guri, gaurko idazleej, aurea artzea da Jose V de Landaren meriturikaundiena. Gure biotzeko Santi Onaindia'k bere EUSKAL LITERATURA saillean, III, 273 orrialdean, dionez Itziar'en jaio zan eta badu "Itsasua eta Biotza" izeneko beste lan bat ere Landa jaunak. Tolosan ere bizi jzan zan, apaiz gertatu baiño lenago. Itziar eta Tolosa ez dira erri txarrak euskera jator bat ikasteko.

Deba'ra aurretik Aulestia eta Aretxabaleta'n izan zan apaiz. Deba'ko parrokokotik Bergara'ko Arzizpretera 1919'an, Eta, emendj, lau edo bost urte beranduago, 011abare'ra. An il zan 1955'ean, 84 urte gañean zituela. Nanclares de la Oca inguruan dago sei etxetako 011abarre erriska.

Zergaitik alde egin zuen Bergaratik 011abarre'ra? Santi'k dionez, J.M. Lojendio aitatz, osasun billa. Ori izango zan "egi ofjziala", egi biribilla estaltzeko. Guk dakjgunez, Deba'ko andre batetik jakinda, benetako arrazoia auxe izan zan; Il zan gizon prestu bat Bergara'n eta illetak urrungo eguneko amarretan bear zuten, Gotzajak berberak emateko. Baña, bere orduan ez zan Gotzaiak agertu, eta Landa arzizpresteak asi zituen. Ez zitzaion ori gogoko izan Gotzaiari eta 011abarre bidean jpiñi zuan Landa jauna.

Giza-neurria Gotzaiak baiño obeto agertu zuan Arzizpresteak. Deba'ko Santa Katalina baserrjko alaba izan ornen zan bere etxeko-andrea. Eta, astero joaten ornen zan, asto gañean joan ere, Gazteiz'era bere etxerako janariak aros-tara.

Anes Deba'ko parroko zaarra





UNAMUNO ETA EUSKERAREN ERIOTZA

Unamuno jauna Erderarentzat gizon prestua izango zan; orregaĳtik edo, alde egingo zigun Bilbo'tik Salamanca'ra. Baña, Euskerarentzat ez_, zan orrela gertatu. Asieran bai, Euskeraren alde jokatu zuen; gerora, ordea, Azkue'rekin burrukatu ondoren, sekulakoak esan zitun, azti txar baten antzera, Euskerari buruzkoak. Eskerrak ez zuela asmatu. Ona ale batzuek, "Origen de los Vascos y de su Idioma", Sabino de Seij000 y Zarrandicoechea" k egiñetik, artuak. Onela dio onek 17'garren orrialdean (1):

"Recordamos aún cuando dijo (en los Juegos Florales de Bilbao en 1901 Unamuno): "El vascuence se extingue, sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción..." Posterior a ese acto, recalcó Unamuno en su obra "La dignidad humana" su tesis de la siguiente manera: "El hecho es que el vascuence se muere, hagan lo que quieran por prolongarle la vida aquellos de mis paisanos que carecen de valor moral. Porque el valor moral consiste en saber plegarse a la ley de la vida y en saber sacrificar a la razón y las exigencias vitales los más caros sentimientos. La pérdida del vascuence es inevitable y, lejos de deplorarla, debemos desear los buenos vascongados que sea cuanto antes... El vascuence se muere y no se logrará resucitarlo con certámenes ni cátedras. Lo único que queda, ya lo dije en Bilbao, es embalsamarle en cĳencia: recoger con filial piedad sus restos antes de que se suman en el olvido, levantarle un monumento funerario..."

Benetako arrazoĳ bat aitatu duela deritzat, "ni cátedras" esatean, Azkue'k kandu bait zion Euskeraren zorioneko katedra edo erakuste-aulki ori. Zapuztuta, erderara jo zuen buru-belarri, Euskerari illetak presta ondoren. Zorionean, ordea, Unamuno'ren asmakizunak ez dira bete. Euskera bizirik da oraindik. Unamuno'rengaitik izan balitz, ilda gendukean aspalditik, "monumento tunerario"rik gabe.

Bere lenengoko, 1901'eko, asmakizun negargarriak, 100 urteko mugatik aurrera bete gabe doa eta doala, asteko, beste 100 urtez. Bere ama xaarrari iltzen uztea konbenigarria deritxo Unamuno'k; baña guk ez degu orrela pentsatzen. Bizĳrik nai degu.

Aitatutako liburuak onela dio 19'garren orrialdean, Unamuno'ren itzetan:

"Es en mi antigua ya la convicción de que el vascuence, interesante idioma

Sabino de seijoo y Zarrandicoechea. "Origen de los Vascos y de su Idioma. De Ibería a Ibería la voz de los abolengos. Iber'erritik Iber'errira lengo aban abotza". Imprime: Escuelas Gráficas de la Santa Casa de la Misericordia. Bilbao. 1952.

de estudio, carece de condiciones intrínsecas para servir de medio de expresión a un pueblo que entre en la vida espiritual y constituye un grave obstáculo para la difusión de la cultura europea en mi país..."


Europa zaarreko kulturaren ez dago itzik Euskera zaarrea ez dagoenik eta itz berriak sortzeko ez dago orrelako grjgorik. Berak berberak dio Euskera "interesante idioma de estudio" dala. Ain "interesante" ba'da, eutsi bizirik eta ez bialdu zerraldo batean illobira. Maiteago det Lizardi Euskerari buruz onela jarduntzen duanean (2):

"Aberriaren abots eztia
gogamenaren ezkon xuria:
ekatzan esku guria,
atorkit geldi-geldia..."

Eder aunagu, mintzo yoria,
eder benetan, garoz yantzia...

Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere nora naikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orista, muin betirako..."


Anes'ek



⁽²⁾ Lizardi'tar X. (Agirre'tar Joseba Mirena). "Biotz-Begietan. Olerkiak". Imprimatzallea Verdes Achirica, Bilbao. 1932, Orrialdeak: 134-136.



URRESTARAZU'tar ANDONI (UMANDI)



"Andoni Urrestarazu izan da euskerak araban ezagutu dauan euskaldun barrjen bizkondearen aita pontekoa. Beragandik asita, asko dira, Umandj'ren gramatikari esker, euskaldundu diranak eta geroago gure ikasleak izan diranak. Euskalgintzan bizi guztian eta musutruk ibilli dan arabar zintzo oneri agur eta oore"

Kepa Mendia
(Bizkaieratuta)

ILLETEA

Azillaren 21'ean, igandez, 1993n. urtean il jakun Gasteiz'en Andoni Urrestarazu Landazabal "Umandi", 91 urtekoa zala.

Araba ber-euskalduntzeko ekjntzaren aurrelarjen artean lenengoetarikoa eta bear ba'da garratzitsuena dogu Umandi. Beronegaz batera aitatu bear doguz Manuel eta Martin anai Lekuona'tarrak, Jakakortajarena'tar Txomin eta beste batzuk.

Bere gorpua azillaren 22'an, astelenez, izan zan illobiratua Araia'ko illerrian, Andra Maria'ren eleizatxuaren ondoan. Erri orretan jaioa zan, izan be, 1902n. urteko uztaillaren 16'an.

Ill etatik urteeran dantzari-talde batek eskiñi eutson omenaldja Araja'ko eleiz-aurrean, eta illerrian aureskua egin eben bere omenez.

Senideak, auzokideak eta adiskideak ugari izan ziran eleizkizun aretan, baita Araia'ko eta beste erri batzutako udalkideak eta errigintza naiz jakintza-arloan diarduen beste asko, esaterako Juan San Martin arartekoa, Endrike Knórr (au Euskaltzaindiaren ordez), EA'ren buru dan Garaikotxea'tar Karlos eta Gasteiziko alkate dan Jose Anjel Cuerda. Au ildakoaren ikasle izan zan. Katalunya'tik Salvador Espriu, baita Sanchez Carrion.

GRAMATIKEA

Bere gurasoak euskaldunak izan ez arren, gazte-gaztetan konturatu zan Umandi, bere sustraiak euskaldunenak zirala, Araia bere errian euskerea galdua izan arren.

1919n. urtean asi zan euskerea ikasten, "Euskaltzale Bazkuna"ren ikasbi-deari jarraituz. Sabindarren bidea jarraitzen eban erakunde onek.

Gero Madrid'en osotu eban ikasketa ori Juan Ruiz de la Escalera Maidagan'egaz eta Donostia'n, Alzaga'tar Toribio ta Agirre'tar M.^a Dolores'egaz.

1942'an, guda-ostean, Laredo'ko espetxean egin eban egotaldia eta gero euskerea irakasten eban Gastejiko bere etxean, Azkue, Altube, Eleizalde, Arrigarai eta beste batzuk irakasbide ebazala.

Irakasketa orretan idatzi ebazan lenengo oarrak eta orreitatik atera eban Paris'en erbesteratuta egoala, 1955'ean, bere lenengo gramatika. Koldo Mitxelena'k aztertua eta Jon Etxaide laguntzaille ebala.

Orduan artu eban Umandi ez-izena. Araia bere jaiotza-erriaren ondoan dagoan Umandia aitxaren gomutapenez.

Ez-jena erabilteko beste zio bat be ba-eukan, beste euskaldun askoren antzera: Bere idaz-lanak dirala-ta poliziak bere ostetik ez ibiltea.

1951n. urtean lantegietako grebak zirala-ta, baitu egin eben eta gero erbestera bidea artu bear izan eban: Hueskan eta Iruña'n izan eban bizilekua.

Euskera irakasteagaitik ez eban inoz dirurik eskatu edo eskuratu.

LAN ZABALA TA AUNDIA

Itzi dauskuzan idaz-lanak asko dira:

—Gramatika bi. Bata irutan argitaratu da erderaz eta gero berak osotu eban bizkaierazko adizkiakaz eta bestea euskeraz argitaratu zan eta Gazteizen egin zan aurkezpena, 1989 urtean.

—"Gentza bearrean" elebarria.

—Araba'ren kondairaj buruz argitalpenak.

—Euskalerrinari buruz argitalpenak.

— Libruska asko.

— Aldizkarietan j dazlanak. Ga;ak: Eritxiak, ezibideak, abertzaletasuna, erlejj-ñoa, kondaira, gaztedia ta abar...

— Umeai euskera irakasteko ikasbide batzuk.

—"Euskal iztegi gogoa". Lan arrigarri au argitaratu barik dago eta euskalburubideen iztegi bat da. Amaitu antzean geratu da. 82 urtekoa zala asj eban Umandi'k lan ikaragarri au, gazte baten adoreagaz. Lana Gaztelera zko "Casares" iztegiaren bidetik doa eta amar urtean 300.000 txartel idatzi dauz eskuz. 600 inguru geratu jakoz egiteko eta oneik Gaspar Erkizia'k idatziko dauz.

Miren Terese bere arrebeak eta Andoni Perez Cuadrado'k 100.000 txartel inguru idatzi dabez idazkiñez.

ERITXIZ ONDO BATUA

Ara zer diñon Andoni'ren idaz-lanai buruz arabarra eta katedratiku izana dan Egea'tar Jesus'ek: Umandi'ren idaz-lanen berezitasunak dirala izkuntza garbia, aberatsa, erakarlea ta zentzunduna, kristiñautasunez eta erri-giroko abertzaletasunez betea. Garbia da, "erderakada"rik onartzen ez daualako, erbesteko barbarik erabilten ez daualako, euskerearen beraren barrutik itz barriak ateraten dauzalako. Ondo ekizan jakin be, itzak osotzearen eta ateratearen arauak. Aberatsa, euskalki guztietako itzak erabilten dauzalako. Zentzunduna, Euskaltzaindiak 1918'an billatzen eban batu-osotuaren iztegia darabilrelako bere idazkietan.

Andoni Urrestarazu Euskerazaintza Erri-Akademiaren kideko osoa zan, baita Kardaberaz deritxon euskerearen aldeko erakundekoa be.

Ez etorren batera Euskaltzaindiak euskera batua egiteko artu dauzan arau barriakaz eta orregaitjk, biotz onez eta maitekiro ez eban onartu oorezko euskaltzain izateko eskintza eta oraintsuago Euskaltzaindiak eskiñi eutson ornealdia.

Bere esker ona agertu ondoren, ez eban onartu Lakua'n dan "Umandi" ikastolaren etxe barria erabilten asteko jaira egin eutsoen deia, eta izena bera aldatzeko eskaria be egin eban.

Ostera, orain iru urte dirala bere jaiotza-errian "seme bikain" izendatzeko eskintza onartu egin eban, baita Gasteiz uriko urrezko domiñea be. Au 1984'an emon eutson Gasteiz Uriak.

Gasteiz'ko Udalak argitaratzen dauan Aldizkari Barri-Emoillearen bigarren ekiñaldian diran 24'tik 38 zenbakietan idaz-lanak argitaratu ebazan.

OLAZARitar MARTIN'ek





EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN 872'ko larruki bat

(Amaia)

Ema'iozun azkena, urte ortako Uztaillaren 4'ean idatzitako larruki onj. Damaizkigun toki-izenak eta giza-jzenak aztertuak ditugu. Done-izenak soilki peitzen zaizkigu.

Bearbada, done-izenak dira antziñako larruki oiek damaiguten gauzarik garrantzitsuenak, aro artako Euskalerrjaren giroa ezagutzeko.

Euskaldunak idazketa ororen etsai gogorrek izan dira beti. Aundia benetan, arlo orri dagokionez, euskaldunen pekatua, batez ere mende zar aietako lekaiden pekatua.

Eundaka eta eundaka ziran, IX mendeko Euskalerrriaren zabaltasun osoan, gure lekaideak.

Otoitz-orduetatik kanpo zer egiten ote zuten gizon aiek? Zer, adibidez, IX mende ontan bertan Kordoba'ko Eulogio Doneak Euskalerrriko mendi-arantetan alako eraspenaz ikustatu, arrigarriki mirestu eta ain orokiro gorestu zituan lekaidetxeetako lekaide santu eta txit jakintsu omen ziran aiek?'

Danadala, au dugu egi negargarria: ez zutela lekaide euskaldun aiek idazketarako joerarik izan. Soilki, larrukj auek idatzi zituzten, eta auek ere, beren ondasunen jabetasuna ziurtuz, ondasun aiek gotzai, errege, aundjki eta erriburuzagien naikeri ta kutizitik babestu aal izateko bakarrik.

Orregaitik, antziñako Euskalerrriaren nolakotasuna jakin nai ba'dugu, larruki auek damaizkiguten xeetasun-apurra aurkeztu-bearrean aurkitzen gera. Beste jakintza-biderik ez bait dugu.

Larruki ontako doneen zerrendak, adibidez, Euskaldunen erlijiotasunaren berri emango digu. Eta erlijiotasun orrek, Euskalerrriko kultura-aizeak nondik jozten zuan IX mende artan.

Done oiek bait ziran mende artan Euskalerrriak ospatzen zituanak.

Ondorioz, Done oiek orduango Bisigotiar-Liturgiko Doneak ba'lira, orrek,

Gure larruki au 872'koa da, 20 urte lenago ibilli zan Eulogio Añamendi'ko Lekaidetxe batzuk ikustatzen. Lilluraturik utzi zuten lekaide euskaldun aien jainko-zaletasunak, jakintza sakonak eta kultura zabalak.

Kultura aren adigarri da Eulogio'k azkena ikustatu zuan lekaidetxetik, Siresa'ko lekaidetxetik, Andaluzi'rako jaso zuan liburu-pillo ederra. Itz neurtuz eta itz lauz, mota guztietako larruki-liburuak: Eliz-Gurasoenak eta erromateko idazle klasikoak.

Ez bait zan Euskalerrria gaurko edestilaritxo askok uste duten bezain motza.

kultur-aizeak Egotik jotzen zuala esan naiko luke: Euskalerrria, kulturari dago-
kionez, Bisigotiarren probintzi bat besterik ez zala.

Alderantziz Done oiek Galietako Liturgiak ospatzen zituan aiek berak d'jala
agertuko ba'litz, orduango gure krjstautasuna ta kultura Iparretikoak zirala
esan bearko genduke.

Ta..., Done ojek emen bertako semeak eta Erroma'ko Liturgiak omentzen
zituanak ba'lira, ipar eta egoaldetiko kultur-erasoetatik at Euskalerrriak Eliz oro-
korraren altzoan bere nortasuna irmo gordetzen zuala aitortu bearrean aurkitu-
ko giñake.

Berdin mintza giñazke giza-izenei buruz. Garai artako giza-izenek ere garai
artako kulturaren aztarnak bait dira. Adibidez "Otxoa", "Teodoriko" eta "Kle-
mente" jatorri berdiñeko izenak ez dirala, argi dagoan gauza da. Otxoa den-
tzan gizasemea, ala Otxanda deritzan gizaalaba, ongi euskaldunak dira noski.

Erne alatagutziz, Teodoriko ala Klemente izen-eramateak ez bait du, naita-
naiez, izen oiek daramazkiten gjzakumeak, bat bisigotiarra eta bestea erroma-
tarra diranik esan naj; erreztartzen dira bá Errj batera, Liturgiaren eragiñez,
Atzerrjiko giza-izenak. Bitez lekuko guk gerok daramazkigun izenak.

Bañan, orrela ba'da ere, txit egokia izanen dugu giza-izenak ere aztertzen
saiatzea, orduango kultur-aizearen ibillerari-buruzko jakintza geixeago ziurtatzeko.

Ekin dezaigun bá besterik gabe larruki ontako Doneen ikerketari:

MARTIN.— Larrukiaren izenburuan aurrena: "De monasterio Sancti Martini
de Ihanía partjs Mena". Izenburu ori ez da 872'koa. Askoz geroagokoa baizik.
XII mendekoa seguruaski. Orduan euskalduna zan Mena Aranean zegoan Iha-
nia izeneko erriska ortaz itzegiñak gera; eta "H" ori seguruaski XII mendeko
berr-idazketan sartu zitzaiola esanak.

Izenburu ontan ez ezé, larrukiaren enborrean ere iru aldiz agertzen zaigu
Donemartiñ'en izena: "... edificavimus atrio Sancti Martini episcopi": "Done-
martin gotzaiaren atariarentzat eraiki ditugu".

"Atari" itza, erdiarohan, etxe osoaren, lekaidetxearen edo uri guzti baten ikur-
tzat erabilli oi zan, eguneroko jzketan; orregaitik, emen, Donemartiñ'en ataria-
rentzat egin zutela diotena, egin zutena Donemartiñ'en lekaidetxearentzat egin
zutela esan naj dute.

Donemartiñ'en lekaidetxe orri emateko eraiki zutena berriz, eliz eta leikade-
txe-sorta bat izan zan. Oien artean, Donemartin beraren izeneko beste eliz
bat: "Sancti Martini de Villa lumnos".

San Martin maiz agertu zaigu IX mendeko dokumentu auetan 800'garren urte
ber-bereko larruki batetik asita. Donemartiñengana'ko eraspenna Konpostela'ra-
bideko erromes frantziarrek ekarrj zigutela, esan oi da. Ori, ordea, egia ez da.

IX, X, eta baita XI mendeetako dokumentuetan iadanik agertzen zaigun
Martin Donearenganako eraspenn ori, ez daiteke erromes aiek ekarria jzan.
Erromes aien denbora baiño zarragoa bait da.

Ona, erromesketa orren sorkuntzaz, kondaira edo "leyenda"k eta edestiak
dioskutena:

Santiago'ren illobia, Teodomiro Iria Flavia'ko gotzaiak aurkitu ornen zuan;
gauzez. Zerutik, dizdiraz, argi miressgarri batek erakutsi ornen zion bidea. Ori
812'garren eta 814'garren urteen artean gertatu ornen zan.

² "Iria Flavia"ri, gaur, "Padrón" esaten zaio. Konpostela'tik bertan dago.

II Alfontso zan orduan Asturietako errege. Errege euskalduna, Erregin euskaldun baten alaba zalako, eta bere gaztaroan, Asturietan aurka jeiki zitzaizkion iraultzaliengandik igesji, emen, Euskalerrian, bere amaren aldetiko aidden artean babes eskjerra, segurua, aurkitu zualako.

Ezaguna da guzti orren edestia: I Fruela errege asturitarrek Araba'ri ekin zion gudaz, eta emen neska "baskoi" bat katibu artuta itzuli zan bere erreñura.

Mjrabetzarako izan zan Araba'ko neska "baskoi" ura baiturik artua; baiñan, azkar, -oso polita bait zan itxuraz neska "baskoi" ura-, arekin ezkondu zan I Fruela Errege borrokalaria. Munia edo MUÑA zuan izen erregin bjurtutako neskatil "baskoi" arek, eta aren semea izan zan II Alfontso.

Ikusiko dugu maiz Asturietako Errege euskaldun au Araba'ren sortaldeko arazoetan sarturik. Agian, Muña bere ama inguru aietako alaba zalako?

II Alfontso orren erregetzakoan izan ornen zan idoroa, ikusi dugunez, Konpostela'n Santiago Apostoluaren gorputza.

Santiago'ren illobirako erromesketa ordea aski geroagokoa da: X mendean artu zuan indar pjkka bat, XI'ean asi zan zuzperetzen eta XII'a arte ez zuan benetako aunditasunik artu. Orduetzkeror urtean Konpostela'rako bide ortatik urtero 500.000 gizakume igarotzen ziralara esaten duanik bada. Ez ote da geitxo?

Danadala, gure dokumentu auetan agertzen zaigun Donemartiñ'enganako jaiera, askoz leenagokoa da: IX mendekoa. Ez daiteke beraz XII mendeko erromesek ekarria izan.

Nondik bá, etorri ote zitzaigun eraspén ori Euskalerrira?

- Bisigotiarrengandik -erantzungo dit agian norbaitek.

- Egia da, Donemartin bisigoten donetegian badagola. Baiñan nondik ordea bisigotiarrengana iritxita? Euskalerritik, agian? Donemartiñ'en Turena eta Bisigoten Españi'ren artean Euskalerrja bait zegoan Auñamedí'ren luzaera guztian, mendi-kate orren bi maldetara edatua.

Ez dala Euskalerríaren bearrik, Frantzin bertan bisigotiarrek aski epe luzez egon ziralako?

Bai. IV mendearén azkenean, 397'aren inguruan il zan Donemartin, eta, ez askoz geroago, an ziran V mendean bisigotak, 507 garren urtean Vouillé'ko borrokaldi odoltsuan garaille irten zitzaizkien frankiar garailleen aurrean Españi'ra iges egin bearrean aurkitu ziran arte.

Gaiñera, Galietan, Tolosa uriburu zuala, Loira ibaieraiño zabaldu zan bisigotiarren erreñua, eta ibai orren ertzean dago Tours, erromatarren Turones, oraindik il-berria zan Martin Donearen gotzai-uri izana.

Ez da ordea sjnistekoa, bisigotiarren artean Donemartiñ'enganako jaiera garai artan sortua izan daitekeanik. Arjanikeritarrak bait ziran orduan bisigotiarrek eta arianitar jarraituko bait dute luzaro VI mendearén azken aldera arte. Katolikoen etsaiak.

- Nondik orduan erromatarrek Turones esaten zioten eta frantziarrek Tours esaten dioten uriko gotzaia zan Martin Doneari Euskalerríak ain goiz-goizetik izan dion zaletasuna?

- Bearbada, zuzenean Donemartin bizi zala, santu aundi ari ber-berari izan zioten maitasunetik.

Turena'ko uri buru zan Turones edo Tours artan bizitu zan Donemartin. Anziña artan Turena ez zegoan Euskalerritik gaur bezain urruti.

Gaiñera, mixiolari ere izan zan Donemartin, mixiolari aundia gaiñera, eta orduan euskera Garona'raiño ziur, eta Dordoña'raiño aski ziur irjsten zalarik, ez

litzake arritzekoa gertatuko Donemartin bera edo bere lekaideek euskaldunen artean mixioketan ibilli izatea.

Nere iritzi bat besterik ez da, baiñan zuzena ez dala iñork agertzen ez duan bitartean beste edozein iritzik aiña balio duana.

* * *

DOÑIBAÑE- "Sancti Iohanne de Quenquezes", edo "Quiencozes", lerro batzuk aurreraxeago.

la beti, lateraz ez duan "H" orrekin agertzen da erdiaroko dokumentuetan. "loahnes" dakar urte bereko larruki batek. Naiz non jarri asmatu ez, ez zuan alatagutziz azturik utzi lumalariak "H" parregarri ori.

Txantxetan ibiltzeke, esan dezagun leialki, "H" ori toki okerrean ipiñi izatea, lumalaria bera oartzeke lumak egin zion "lapsus calam_i" edo "lumaren oztopo" bat jzan zala.

Dokumentu auetako Johannes ori Donibane Ebangelarja dugu, Kepa'rekin eta Paul'ekin batera euskaldunen aldetik eraspelik aundiena irabazj zuan Apostolua.

* * *

MIREÑ Josu'ren Ama.- "Sancta Maria de Govia". "Sancta María de Rusion". Esan bearrik ez dugu noski, kristaudi osoan bezala Euskalerrri zar artan ere txit goietsia izan zala Miren Neskutsa, Jainkoaren ama.

Kukulla'ko larrukirik zarrena, VIII mendearen erdikoa da; 759'koa. Azterturik utzi genduan aspaldi dokumentu ori. Oroi an agertzen diran lekaimetako bategen Maria duala izena.

* * *

AGATE.- Bi dira izen ontako emakumezko Doneak. Bat, neskatxa, oso antiñakoa, IV mendearen asieran Diokleziano'ren aginterakoan martiri erailla. Bestea, ezkondua, XI mendekoa, Konte borrokalaria baten emaztea. Zillegi bezait idazlan legor au goxatzeko, bizpauri itzez emazte done onen kondairaren aipu labur bat egitea. Entzun:

Bere gaztelutik urruti gudaketan nasirik dabil konte senarra. Emazte kontesa, berriz, bere gazteluan, karitate ekintzan, oiturazkoa duan bezala.

Eldu da noizbait konte senarra, eta norbaitek emaztea aragikeriz zikinduta ezezagun batekin larru jotzen ibilli dala esaten dio.

Jartzen da sutan kontea eta, besterik gabe, artu aidean bere emaztea, ta gazteluko goien-goieneko leiotik aidera jaurtitzen du gaixoa. Urbiltzen zaio konte asarretuari, bere andrea babestu naiez, gazteluko miraberik zarrena.

Asarretzen da geiago kontea, eta an dijoa gure mirabea ere leiotik kanpora bere andrearen atzetik.

Jainkoak ordea zaindu dju bi emakumeak, eta kontea leiora urbiltzen danean, ara non ikusten dituan bi emakumezko aiek bata bestearen besotik pake osoan, Jainkoari eskerrak emateko, elizarako bidean.

Arriturik, damuturik eta Jainkoaren aurrean izaturik, Erroma'ra doa kontea penitentzi mardulak egiñez, eta penitentzi artean amaitzen du bizia.

Gure larrukiko Agate, jakjña, aurreneko ura da: neskatx martiri sizilitarra. Lau dira guregana iritxi diran Bisigotiarren Liturgiko Donetegiak. Lauetan agertzen da Agate Donearen izena. Baiñan baita kristaudiko beste Donetegietan ere. Erroma'koan bereiziki.

Alatagutziz, ez zan aundiegia izan Bisigotarren artean Agata Done orrek izan zuan aipua. "Santa Agueda y san Felix (de Nola) son completamente desconocidos en la literatura epigráfica visigoda. Hasta principios del siglo X no tenemos conocimiento de algún templo dedicado en España a Santa Agueda"³.

Oker dabil oraingoan Fábrega Apaiz Jauna.

Egia au da: X mendearen asieran, Naparroa'ko erreñuaren lurraldeetan Agate Doneak bere izenera eraikitako eliz bat bazuala, Najera'n ainzuzen, eta 927'garren urtean eliz ori III Gartzia Naparroa'ko erregeak eta Tarasia edo Teresa bere emazteak Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeari eman ziotela: "illo monasterio in civitate Naiera, vocato Sancta Agatea", "Donagate esaten zaijon, Naxera urriko lekaidetxe ura".

("Lekaidetxe" auek, maiz aski, beren serbitzura apaiz bat edo kristau bakar-tasunzale bat zutela, eliz utsak ala baselizak izaten ziran).

Baiña X mendeko eliz ori ez da Ispanietan Agate Doneak izan zuan aurreneko Eliza. IX mendekoa bait da aztertzen ari geran gure larruki onek damai-guna: Paul abatak eta bi lagunek Losa'ko Donemartiñ'i, "bere ondare eta aberastasun guztiekin eskeiñi zioten Manata'ko Doneagate": "Sancta Agatea de Manata cum suas hereditates et pertinencia".

ERROMAN.— "Et presimus pressuras Sancti Romani de Val cavata". "Eta Doneroman'entzat, Balkabata'n, jaberik gabeko lurrak artu genituan". "Val cavata" eta "presuras" oietaz mintzatuak gera. Santu zarra dugu Erroman; sortaldetarra; Antioki'n martiri il zana.

Ez dager Erroman au aipatu d;tugun lau santutegi oietan. Prudentzio Kalagurritarrak bai, bere "Peristefanon" edo "Koroiaketa" izeneko poeman 1.140 itzneurtuzko olerki bat eskeiñi zion. Poema ortan luzeena.

KIRIKO.— "In loco que dicent Sub penna, ad Sancti Quirici": "Aizpe esaten dioten lekuan, Donekiriko-aldean". "Ibiden in Sancti Quirici nostros agros": "Antxe bertan, Donekiriko'n, gure alorrak".

Badator Kiriko bisigotiarren lau santutegietan, baiñan Julite'rekin batera: "Sancti Quirici et lulite". Ama-seeak ziran, sortaldekoak, zirilitarrak, Diokleziano'ren agintaritzakoan martiri illak; Kiriko semea, aurrena, oraindik oso mutiko gaztea; eta, aren atzetik, Julite ama.

Munduko martiritegi guztietan agertzen zaizkigu ama-seme auen izenak. Beti alkarrekin gaiñera, esan dugun bezala.

Orregaitik, bakarrik datorren ezkerro, ez dirudi larruki ontako Kiriko izen bereko mutiko martiri ura danik.

Bada itxura berdiñeko izena duan beste Done bat: Kirino, Kroazi'ko Siszia zeritzan eta gaur Sissek deritzan uriko gotzaia, Galerjo inperatore zala, 309'an, martiri il zana.

Badu Prudentzio olerkariak aren goraipuz olerki bat: "Peristefanon" poema'ko VII'a. Kirino au ordea, ez da Bisigotiarren liturgiko Donea.

Alatagutziz, au ote da lenen lumalariak larruki ontan aipatu nai izan zuana, eta berak oartzeke, edo aren atzetik etorritako lumalari birr-jdazleek, atzipeturik eta oartzeke Kirino idatzi bearrean Kiriko idatzi ote zuten?

³ Angel Fábrega Grau: "Pasionario Hispánico", I, 184.

Ez dut uste. Bi aldiz agertzen bait zaigu izen ori, Kiriko, gure larruki ontan.

Alatagutziz, Donekiriko orrek ez du len Euskalerrriaren Sarkaldea ziran lurraldeetan aztarnarik utzi. Madoz'ek aipatzen du 45 biztanle zituan San Quirico izeneko erriska bat.

Baiñan erri ori ez zegoan Euskalerrriaren Sarkaldean, Katalauni'n baizik, Girona'ko probintzian. Ez daiteke beraz, iñolaz ere, gure larruki ontako Donekiriko izan⁴.

AZISKLO.— "Illas vineas de super Sancti Aciscli": "Azisklo Donearen gaiñeko masti aiek". Emen ere, Donazisklo izen orrek erritxo baten edo, seguruaski, lekaldetxe baten izena d; rudi.

Kordobatarra zan Donazisklo. Bera bakarra gaiñera Eliz osoaren santutegian, ez bait dugu izen ortako beste Donerik. Bera da bá izen ortako Done bakarra.

"Peristefanon" edo "Koroiaketa" izeneko IV abestian dagi Prudentzio olerkariak Azisklo martiriaren goratarrea. Kristo Erregearen aurrera, Prudentzio kalagurritarrak dioskunez, munduaren azken-uneko a;ntza-egunean Kartago'k Zipriano eta Kordoba'k Azisklo eta Zo;lo aurkeztuko ornen dituzte:

*

"Afra Carthago tua promet ossa
ore facundo Cypriane doktor;
Corduba Acisclum dabit et Zoéllum
tresque coronas"⁵.

Euskeraz:

"Afrika'ko Kartago'k, Ziprian, ago gozoko irakaslea,
zure ezurrak ekarriko ditu.
Kordoba'k berriz Azisklo eta Zoilo ditu agertuko.
Eta iru buruntza geiago"⁶.

ZAZPI DOÑEEN AIPUA.— "Sancti Juliani et Baseli;se, et sancti Vincenti et Leti, et Sante Iusta et Rufina et Sancti Felicis Nolensis ecclesias fundatas sunt in loco que dicent Ponte Cerci" "Ponte Zerzi esaten dioten tokian izan dira erai-kiak Julen eta Basilise Doneen, Bixente eta Leto Doneen, Juste eta Errup;ñe Doneen eta Felis Nolatarraren elizak". Iker ditzagun banaka zazpi Done oiek:

JULEN ETA BASILISE senar emazteak ziran. Siri'ko antiokiarrak. Diokleziano'ren zigorraldian ¿Ejito'n? martiri illak. Liturgi bisigotiarrean Donerik zarrene-takoak ornen dira.

Baiña, Bisigotiarren artean ez ezé, era berean ziran omenduak Erroma'ko Liturgian ere. Egia esan, bi Elizetan, Sarkaldekoan eta Sortaldekoan izan dira era berdiñean omenduak. Biak batera gaiñera, beti.

⁴ Madoz'ek joan dan mendean 1845'etik 1850'era bitartean idatzi zuan bere iztegi ederra. Peristephanon, IV, 17.

⁶ "Tresque coronas": "Otros tres mártires más cuyos nombres no se han conservado". Marcial José Bayo: "Prudencio; Himnos a los Mártires".

Ez da arritzekoa. Senar emazteak izateaz gaiñera, Jainkoari birjintasunean bizitzeko eskaintza egiña bait zuten.

Ez dira, ala ere, Prudentzio'ren olerkietan aipatzen.

BIXEÑTE ta LEIO. Bi Donek daramate Bixente izena B̄isigotiarren Donetegan: Bat, Auñamendi'tiko diakono martiri euskaldun ospetsu ura dugu; eta beste au; beti Leto'rekin batera aipatua oi dana: "Sancti Vincenti et Laeti. Biak dira bisigotiarren donetegiakoak, baiñan euskaldunak, seguruaski, biak.

Gaiñera, bisigotiarren lurraldetik at ere, aipatzen ditu Erroma'ko martiritegiak. "Si tratta sicuramente, dio Bibliotheca Sanctorum iztegiak, dei santi martiri venerati a Dax, nel cui Breviario si trova una leggendaria Passio S. Vincentii Martiris et Laeti eius socii qui in Aquensi civitate (Dax'en; euskeraz Akitze'n) passj sunt (jasan zuten eriotza)".

Iñork ez daki bi Done oiek non jaioak diran. Erroma'ko Brebiario edo "Orduen Otoitzeko Liburu"ak, 1.502'an Zisneros Kardenalak argitaratutako Mozarabitarren Brebiariotik artu ornen zuan done oien aipua.

Baiñan ez brebiario onek, ez onengandik jaioa dan Erroma'ko beste arek, ez mozarabitarren donetegi guztiek ez ornen dute punttu ortaz argitasunik ematen.

Akitze'ko Brebiarioaren egilleak berak ere aitortzen ornen du bere jakintzarik eza: "Lo stesso autore confessa onestamente ignorare tutto sul (epoca, la vita, il nome del persecutore, il modo del martirio, e la dignità dei martiri. Il Martirologio Geronimiano invece (ordea) commemora a questa data del 1 de Settembre Vincenzo corno vescovo martire a Dax". (B̄ibliotheca Sanctorum)

Iñork ez daki beraz nongoak ziran Bixente eta Leto jzeneko bi Done oiek.

Baiñan nonbaitekoak izatekotan, Euskalerrikoak ditugu, dirudianez beintzat. Prudentzio'k oparo abestu zuan Bixente martiri euskalduna. Bixente ta Leto, ordea, ez zituan, dirudjanez, ezagutu ere.

JUSTE TA ERRUPIÑE sebillatarrak ziran eta Diokleziano'ren denboran il ziran martiri. Biak daude Donetegi bisigotiarretan. Eta baita donetegi oietan baiñon leenago "Martyrologium Geronimianum" esan oi zaion VI mendeko "Martiritegi Jeronimotarrean".

Prudentzio'rentzat, ordea, ezezagunak dira bi neskatiñ auek ere.

NOLA'KO FELIS. Badirudi Euskalerrian ere ezaguna-edo izan zala, bere bizitzaz ezer gutxi dakigun Donefelis nolatar au. Eraspen aundia izan zion beintzat IV mendean Bordele'n jaiotako Donepaulin nolatarrak. Eraspen orrek eraginda joan bait zan Itali'ren egoaldera, an, Nola urian, lekaide bizitzeko asmoz.

Ez ordea aurretik, olerki txolin baten bidez, Euskalerraren izen ona umeke-rizko mintzoz zikindu gabe.

Nola'ko gotzai egiña izan zalako, naiz Bordele'ko semea izan, Nola'ko Donepaulin esan oi zaio. Bordele euskaldunez inguraturik aurkitzen zan IV mendean. Eta an, Bordele'n, sortu ba'zittaion gure Paulin Doneari Nola'ko Felis'enganako ain eraspen sakon ura, eraspen ori IV menderako Euskalerrira eldurik zegoala esan bearko genduke. Nondik eta nola? Ez dakigu.

Ez beintzat bisigotiarrengandik, jakiña. Auek ia eun urtez gedroagokoak bait dira Galietan.

Bisigotiarrengana, askoz geroago, Itali'tik etorri ornen zan: "Corno es natural, no queremos aquí tocar, ni de lejos, el intrincado problema de la historicidad de San Felix de Nola. Fuera obispo de Thibiuca, fuera obispo de Nola, lo cierto es que su culto en España, por lo menos según el texto de su Pasión, es una influencia manifiesta del santoral de las iglesias italianas en nuestra liturgia".¹

Itali'tiko "influentzi" edo eraginmen oh nondik zetorkion Toledo'ko Eliz bisigotiarri? Zuzenean Sortaldetik itxasoz? Ala, Iparraldetik, Galietako Proben-tza-zear?

Onela izatekotan, Euskalerriko Elizara Toledo'ko Eliz bisigotiarriera baiño le-nago irixi zala, logikaren eskutik ezpairik gabe esan daitekean gauza dala diru-di.⁸

Danadala, Nola'ko Felis au ez du Prudentzio'k bere olerkietan abesten. Bai beste bi; bat Zalduba'n, ots, Zaragoza'n martiri illa eta Katalauni'ko Girona'n bestea:

"Publium pangat chorus et reuoluat
quale Frontonis fuerit tropheum,
quid bonus Felix tulerit, quid acer
Caecilianus

Euskeraz:

"Kanta beza abesbatzak Publio'ren omenez,
eta ager beza nolakoa izan zan Fronton'en garaitza,
zer jasan zuan Felis zintzoak eta zer
Zeziljano bikaiñak".

"Parua Felicis decus exhibebit
artubus sanctis locuples Gerunda,
nostra gestabit Calagurris ambos
quos ueñeramur"

Euskeraz

"Done-ezurrez aberatsa dan Girona txikiak
Felis'en aintza aurkeztu aal izango du
gure Kalgurri'k berriz eraspen aundjz daukagun
bi aieñ" 8.

Bi Felis auek bai, oker ibiltzeko bildur aundirik gabe esan daiteke izan zutela zer ikusirik euskaldunekin. Euskalerrria, garai artan, Iparraldetik eta sarkaldetik

¹ Angel Fábrega Grau, "Pasionario Hispánico", I, 184.

° "Toledo'ko Eliza" deitzen diot Eliz Bisigotiarri. Oartuko ziñan zergaitik. Toledo Bisigotiarren uriburu izan zalako, eta Eliz Bisigotiar arek bere ekintzarik garrantzitsuenak Toledo'n egiten zitu-alako: Ospetsuak bait dira mundu guztian "Toledo'ko Kontzilioak". Emeterio ta Zeledonio dira bi oiek.

Zaragoza'ren gain-gaiñeraiño insten bait zan; eta beste ura, Katalauni'n martiri jidako beste ura, Zerretiar euskaldunengandik oso urbil ibilli bait zan 10.

Nolakoa ote dugu, IX mendeko larruki onek damaigun done-zerrenda ortatik jaso dezakegun uzta?

Ez, aberatsa; ezta oso ziurra ere.

Done oiek Toledo'ko Erreiñu bisigotjarraren Rizan omenduak izateak ez digu, beintzat berak bakarrik, bisigotiarren kultura IX mende artan Euskalerrira sarturik zegoala eskierkj jakin aal izateko balio. Ez bait dakigu, done oiek orduan gaur baiño askoz zabalago zan Euskalerrj artara nondik etorri ziran. Egoaldetik, ala Iparraldetik?

– Done aietako batzuk, Paul, Jon eta Miren Neskutsa bezala, ez dira Toledo'ko Eliz bisigotiarren liturgiko Doneak. Eliz gutzikoak baizik. Oiek beraz ez dute deus erakusteko balio.

– Beste batzuk berriz, bildurrik gabe esan daiteke, Toledo-aldetik onera etorri ez baiña emendik Toledo'ra joan zirala. Prudentzio kalagurrjarrak bere olerkietan abestu zituan guzti aiek, adibidez.

Prudentzio, IV mendeko olerkaririk onenetakoa dugu; bearbada, danetan onena.

Bere olerkiak kristaudi osoan izan ziran irakurriak eta abestuak, eta, nola ez?, beste toki guztietan bezala bere unan: Kalagurri'n. "Baskoien" urinagusia. Toledo'ko Eliz bisigotiarra sortu aurretik, bazuan Kalagurri'ko Eliz euskaldunak Done oien albisteak.

– Juste ta Errupiñe bezala, Larruki onek damaizkigun bisigotjarren liturgiko Doneak, ez dira done bisigotiarrek, erromate-aroko Done jspani-erromatarrek baizik, eta Liturgi bisigotiarra sortu baiño len kristaudi osoko liturgietan ospatzen ziranak.

Liturgi bisigotiarra sortu baiño len ez ote ziran, Done oiek, Euskalerriko Elizen liturgietan ospatzen?

Baietz dirudi.

Eta gure Errira geroago etorri ba'ziran ere, nondik etorri ote ziran onera? Egoaldetik? Ez. Iparraldetik seguruaski. Ikus:

Sarkaldera Done oien izenak zabaldu zituana "Jeronimo'ren Ziñopategia" izan zan. "Ziñopategi" edo "Martyrologium" ori, Galietan, Auxerre izeneko urian egin zan, VI mendean. Mende artan Auxerre ez zegoan Euskalerrri zabal artatik gaurko Euskalerrri txiki ontatik bezain urruti".

Ez al da, beraz, uste izatekoa, bisigotiarren Ispania'n baiño askoz leenago izan zirala Done oiek danak emen, Euskalerrrian, ezagutuak eta liturgian omenduak?

Larrukj ontako giza-izenak, EUSKERAZAINTZAREN XXII alean aurkituko dituzu. An agertu bajt ziran azterturik.

Latiegi'tar Bixente

¹⁰ "Cerretani", idazle erromatarrek aipatu oi zuten "tribu" edo "leiñu" euskaldun batekoen izena da.

¹¹ "Martyrologium Ieronimianum". Izan ori ez zaio ematen Jeronimo'k idatzia izan zalako. Asieran Done orren gutun bat dakarrelako báizik. Bi argitaraketa izan zituan; aurrenekoa, V mendean 431'garren urtea igaro ta laister, Erroma'n egiña, eta galdua duguna. Bigarrena, eunen bat urte geroago, VI mendean Auxerre'n egindako au.

IZTUETA-ren LANGINTZ-IZTEGIAK

I. Azkuek ez dituen eta galdetuta ere garbitu ez ditudanak.

(232 orr.)	(234)	(235)	(224 orr.)
Gaintzerua	Basara (Basa da?)	Argea	Artzantza
Ubarukoa	Gibeltza	Edatootsa	Asuna: iragarkia
Zekaia	Izutuitza	Elurti	Elkorra
Zillaia	Laurtu	Izarkia	Arsugatsak: tenazas
Arzoa	Lukitotza	Izkiota	Gatzagi-potoa
	Sokaña	Laumboro	Epaikia: ontzia da
		Lurzuria	Urie
		Truina	
		Uanibillak	
		Udarraskia	

II. Azkuek ez dituenak edo areago argituak

(232)

Lauortza.	Apero de cuatro púas o dientes de hierro, cuatridente, cuya cabeza se ajusta a un agujero cuadrangular practicado en el extremo posterior de la pértiga; el extremo delantero va unido al yugo por el zaplo o zapiño.
Besarea	Apero de 5 ó 7 dientes, incrustados en los brazos en forma de Y griega que tiene todo el apero. La porción longitudinal, pértiga en todo igual al <u>lauortz</u> .
Arrea	Es también llamada Area. Azkue, 2.º.
Nabarra	Reja idéntica o muy parecida a la del arado, sujeta a una pértiga, que sirve para cortar la tierra en incisiones paralelas a modo de carriles, cuya anchura ha de ser apropiada al número de layadores que hayan de intervenir en el volteo de la tierra.
Ondeoatxurra	(Ondatxurra). Azadón fuerte y alargado para practicar el <u>ondalan</u> . Azk.
Aiotza	Azk. Aiotz, machete. Suele llevar un mango largo como de un par de metros para cortar setos, zarzales, etc., que es su finalidad.
Gorotz-atxur	Azada para trabajar en estiércol.
OtajAkia	Debe ser "otajOkia". Consiste en una pala o lámina plana de hierro incrustada en el extremo de un mango bastante grueso y en la misma dirección de este, no perpendicular a él, como lo es v. gr. en la azada. Sirve para majar las ramas o

	brotes tiernos de argoma (ota) que, mezclados con salvado, constituyen pienso de cerdos principalmente.
Otatxurra	Corrientemente es la misma "ondeoatxurra", utilizada para limpiar el monte de argomales (ote).
Ere	Azk. Ede, coyunda.
Gurt-ubala	Grueso trenzado de correas que, envolviendo el yugo por su agujero mayor, aprisionan el carro por la punta de su pértiga. El gurt-ubala lleva sendos orificios a modo de gafas en sus puntas, por donde se mete y sujeta el gurt-ibuin o lanza de la carreta.
Lardaja	Azk. 1.º, 2.º. Es distinta del gurt-ibuina, es decir, no forma un todo inarticulado con el gurdia; tiene articulación con el yugo y con la carga que se pretende arrastrar: es la pértiga usada en las <u>idi-probak</u> .
Laurtibuña	(Lau-ortz-ubuña) Timón o pértiga del <u>lauortz</u> .
Besare-sardea	No en Azk. Sus dos componentes son claros: <u>besare</u> más <u>sarde</u> , pero desconozco este aporo.
Ñabar-ibuña	Cf. Laurtibuña.
Gurt-eskalla	Escalera de la carreta, e.d. las barras (gurdi-barrak) que atravesando de parte a parte el gurt-ibuin se incrustan en las arasak, formando así el conjunto el "gurt-etxe" o cama del carro, de forma de una escalera.
Gurt-pertika	Azk. pertika,
Gurt-ezpata	Azk. ezpata, 4.º Son par, en vertical sobre el la pértiga, por delante y detras del gurtetxe o cama-bastidor de la gurdia.
Gurt-ibuña	Azk. gurtetza.
Gurt-orraziak	Peines de la carreta. Son dos pares de pjezas de madera, par por cada lado, gruesas y fuertes, cuadradas o algo aguzadas por una punta. Inserto el extremo superior en el agujero ad hoc de la arasa, rebasan hacia abajo el eje de la carreta, aprisionándolo. Son el dispositivo más a propósito para el clásico gurdj-irrintzi, el "plaustrum gemens" del poeta latino.
Gurt-olak	Tablas colocadas en la cama o guri-etxe de la carreta, para evitar la caída de la arena, estiércol fino o cualquier cosa menuda que se transporte.
Gurt-arasak	Azk. arasa, 2.º.
Txiñolak	
Txandeoak	
Txaukurak	Ño en Azk. Me aseguró un casero que las tres son sinónimas. Cuatro piezas, de finalidad idéntica a la de las gurt-orraziak. Tienen un vacjado semicircular en el centro. Se fijan con hierros atornillados una en cada arasa, con el semicirculo hacia abajo y se le aplica la segunda pieza con el orificio hacia arriba, aprisionando así entre las dos el eje de la carreta.
Taketak	Azk. 1.º. Palos puntiagudos, cuatro en número, fijos en los cuatro extremos del gurtetxe o gurt-arasak.
Kabilla	Azk, 1.º, 2.º. Es lo mismo que "ledakoa". Cada una de las


	dos clavijas transversales atravesando la punta de la lanza de la carreta; sirven fijando el gurtede entre ambas, la delantera para la pro-tracción, la trasera para la retrotacción.
Biurrak	Azk., biur, 4.º Varas retorcidas, de mimbre o avellano, que partiendo de la gurt-ezpata delantera a las puntas de las arasak, dan consistencia a la ezpata.
Txurrillea	Azk. Txurril.
Marra	No en Azk. Parece claro que se trata de una errata, por Narra. Azk. Narra, 1.º.
Otaska	Azk. 1.º. En el se realiza la operación descrita en Otajaki.
Sardea	Azk., Sarda 1.º.
Iraburrak	Azk. Irabiurrak, donde se distinguen claramente sus tres elementos. Se emplean para desgranar a golpes, como latigazos, habas secas, alubias, etc.,
Kakoa	Azk. 1.º, 3.º. Sirve para colgar guadañas, yugos, rastrillos...
Sega-poto	Azk. Segakotxu. Colodra.
Sega-Txingura	Azk. Txingura.
Seka-eraztun	No Azkue. Anillo, aro, para fijar, por su apéndice de inserción, la guadaña en su mango.
Arzea	Azk. Txarata 2.º, como es lo corriente.
Liñagabia	Linagabia, donde Azk. no determina su significado. Cfr. GABIA 1.º, martinete, martillo para golpear el lino.
Garba	Azk. Karba 1.º, karbari.
Sugatza	Azk. Sugats 1.º. Tranka, tranga, en el sentido del precedente "karbari" "Sugazkotan ari zirala, trangaketan, alegia", me dijo un casero.
Matazurkia	Azk. Matazura, donde interesa Matazurki.
Arilkaia	Azk. Ariljaki, donde está arilkaia.
Galbaia	Azk. Gal-bae.
Lisiba-txorro	Gaur ikusi dut (74.IV.22) Apozaga-n tresna au ta ango apai-zak "Lisiba-txArro" deitu du. Según esta interpretación arras-ka, piedra cóncava a modo de baptisterio o ponteá, para la colada. Descansa sobre una piedra plana, circular, algo excavada, i.e., con borde bajo, provist de un pequeño canal de desagüe.
(234)	
Luerloa	Azk. Erlo itzaren adieran.
Ereingarria	No en Azk.; supongo será "sembradío" o algo por el estilo.
Labakia	Azk., más laakia.
Zoia	Azk., más Zogi.
Sokilla	Azk. dice Soki.
Sokorra	Azk. Para nosotros Sokilla, terrón grande; Sokor, terrones más menudos.
Errolla	No en Azk. Canales que se practican en sembradíos costaneros, a fin de canalizar las aguas y evitar el arrastre de la tierra labrada.
Lubaki	Azk. Luebaki,
Ezola	Azk. Ezola, que es la forma corriente.

Ormaleor	Azk. OrmaleGor.
Esatea	Azk. 3.º. (Esi-atea).
Izutuiza	No en Azk.; pero por los terminos que le preceden y siguen se ve que es algo así como un <u>pasadizo estrecho del seto</u> , probablemente sinónimo del precedente y siguiente, tan parecidos entre sí.
Sakona	Azk. lo da como adjetivo, pero aquí es sustantivo = hondonada, depresión de un terreno.
Gibeltza	No en Azk. Cfr. tamen Azk. "Gibel". Paraje tras de algo, sombrío, como Ospela, Laiotza, que es la palabra que le sigue.
Malloa	Azk. Mallo.
ZingiDa	Azk. ZingiRa.
Iñaurkiña	Azk, Iñaurki.
Altxerria	Azk. altxirra, Altxirri.
Añoa	Azk. 1.º, después de ANO, Anho.
Otrolloa	Azk. Otrillo.
Masalastoa	Azk. Maxalasto.
Urgalda	Azk. Urgaldu = desgrane.
Kematu	No en Azk. Parece clara errata = Kimatu, que falta en Iztueta.
Arbñleorra	Azk. Arbi, post 7.º, clases de Arbi, g).
Pagatxa	En Azk.; pero no corresponde a éste; vide autem PagOtxa, que es el de aquí.
ErUe	Errata, por "erNe".
Laurtu	No en Azk. Sospecho que es "lau-ortz-tu", que es término que falta e Iztueta; le sigue "besaretu", que es labrar con el "besare", de 5 ó 7 púas. Además Iztueta transforma "lauOrtz" en "lau.rtzibuña" cuando dice "pért;ga" del "lauortz".
Besaretu	No en Azk. Cfr. Laurtu, hic supra.
Mulxika	Azk. Muxika.
Odei	Azk.; pero en algunas zonas = nubes de tormenta.
Izotz beltza	Azk. en los derivados de Izotz.
Ifarlausó	Azk., Lauso 5.º.
Kazkarabitoa	Azk. Karkabito, kazkarabar.
Truina	Ño en Azk. Creo que no andará lejos de significar "nube", a juzgar por "trun-bil", nube apelonada, redonda.
Elurti	No en Azk. ¿Ñivoso?
Elurlapatsa	Azk., más Lapatx.
Elurpikorta	Azk., pikort, elur-pikort.
Elurmarota	Azk. en Elur-malko, malo 5.º, maluta 2.º
Elurbisutsa	Azk. Bisutsa.
Elurra mara mara	Azk. "mara"; pero mejor significando "copiosamente", como en ejemplo 2.º.
Lurbeltztu	Azk. Lurbel.
Luizi	Azk. Lubizi.
Ostiia	Azk. Osti.

Oñaztarria	Esta serie que en lzt. empieza por "oñ", Azk. con "olñ".
Ostreliaka	Azk. Ostrailaka,
Edatotsa	No en Azk. Lejano ruido en la atmósfera, precursor de fuerte tormenta de piedra o granizo.
Uarre	Azk. Uar.
Ubilduak	Azk. Ubil. como antes "elurbildua".
Ujola	Azk. Uiol.
Izkiota	Azk. (?).
Asuna	Osaba Justok: Zeraindar larogei urteko nekazari batek, "osuno" artzaiek erabilioi duten iragazkia dala esan dit: filtro, colador, ardi-eznea garbitzeko. P. Auzmendi: Segurar gazteago batek, kaletarra bera, esan dit: — "ni ikusita nago eznea inbutu batetik pasatzen, inbutuzuloa "asun"— orriz estalita. —Beraz, "iragazkia" izango litzake gure "asun" ori, baiñan asun-landarakin zer-ikusia zuena, leenengoko artan beintzat.

Gainerako beste ogei itzak, nekazari zaarrei galdetu-arren, ez dut garbitzerik izan zer esan nai duten. Denbora lasai izan banu saiatuko nintzan areago ere; baiñan iñola ere ezin, lanak ittota bainabil, ibili. Agur. Izan ongi. Zure adiskide.

Goikoetxea'tar J.



SANTA AGEDA AINTZIÑAKO BIZKAI'KO ERAN

ESKE - BATZEAN

Euskalerrian limosna-billa edo eskean joateko aukerak ugarj izan dira, esaterako Natibitate, Urtebarri ta Apalazio egunetan, eguen zurjan, Santa Ageda'ren aurreko egunean eta desagertutako beste egun askotan.

Orain dala ainbat urte erriko zaar eta gazteak joaten ziran etxerik etxe Santa Ageda batzen eta tokian tokiko kopla zaarrak bertako erreferentziagaz abesten ebezan.

ZELAN ABESTU

Abeslari batek bakarreko abotsean abesten eban eta taldekideek estribilloa edo leloa errepikatzen eban.

Erritmoa markatzeko txiliñak erabilten ebezan, beste leku batzutan arranak be bai.

Urteak joan-ala desagertuz joan zan gure arbaso zaarren oitura eder ori eta urte batzuk dirala abadeak euren kontura erabagi eban Santa Ageda'ren abestia moldatzea, koral batek abesteko modu edo era apain batean ipiñiz.

MODU BARRIA KALTEGARRI

Modu barri orrek alde txar bat dauko, beste askoren artean. Nik kalterik garrantzitsuen lez, auxe aitatuoko neuke: Erritarrek graziz beterik abesten ebezan bakoitxaren gorabera; seriotasun larregi emon dautsela abesteko orduan.

Ori dala-ta, aintziñako erako Santa Ageda ber-eskuratu nai izan dot. Orretarako Jon Lopategi bertsolari muxikarrak lagundu nau, berak buruz zekizkin kopla zaarrak abestuz.

Leen bere esan dot eta barriro be esango dot, tokian tokiko kopla zarrak aldatu egiten dirala, erri bakoitzeko gora-beerak iragarten dabezela.

8'ko nagusian daude bertso auek. Gipuzkoa'n ematen dira geinbat.

Zorion etxe ontako denoil
Oles egitera gatoz:
aterik arte, oitura zarra
aurten barritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oiñetakoz:
baña eztarriz sano gabiltza
ta kanta nai degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa Ageda maitea gur artu degu
gure bideko laguna,
aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarduna.

BIZKAI'KO KOPLA ZAARRAK

Leen alpatutako Bizkai'ko koplak zaarrak emen doaz, guztira amaika bildu dodaz, baiña geiago bere ba dira.

Euren berezitasunetariko bat zera da: Koplak batzuk iru errima daukiez eta beste batzuk, osterak, bi besterik ez. Iru errimakoak gozoago emoten dabe belarrira.

Bertsoak edo koplak zaarrak ez dira egundo be irakurten, abestu baizik. Abestu nai ba'dozue, doiñua "Egun da Santi Mamiña" erabil dezakezue.

Beste barik emen doatzue koplak-sorta.

1		6
Bedeinkatua izan dedila etxe ontako jentea pobre ta umil dabilzenentzat } Bis		Sentitzen zaitut sentitzen jagiten zelan zabilten zure ointxuen txiplitinotsak sala barria astintzen
2		7
Santa martiri maitea dago errukiz betea berak alkantza daigula danoi osasuna ta bakea		Etxean bada Patxiko ez det oraindik etsiko ez ote zaigu tardatu gabe li mosnarekin jetsiko
3		8
Zeru altuan izarra errekondoan leizarra etxe ontako nagusi jaunak urregorritzko bizarra		Orrelakorik ez da egiten santaeskeko langintzan karien kara jarri bazina enamoratuko nintzan
4		9
Urregorritzko bizarra eta diamantezko espalda erreal txikiz egingo leuke eleizara;no kaltzada		Amaseikoa zillarra zala larogei peseta ditu, guri pare bat emonagaitik } Bis
5		10
Errekondoan urtetan dabe udebarrian pitxiak arexek baino politagoak Maritxu zure begiak		Esku bation argja bestean lukáinka paria, arel bieri gitxi eretxita altzoan dozena arrautzia. } Bis
	11	
	Solomogarri luzje aren koipien dultzie, zatirik kentzen ibili barik } Bis	

AZKOITI'KO PARROKIAZ ZENBAIT BERRI!

Agirietan, ba-da ere, beste bi izen ere izan zituan leen Azkoiti'k: SAN MARTIN DE IRAURGUI bata, ta MIRANDA DE IRAURGUI bestea... Eta bi izen bezela, beste bi parroki ere bai oraingo-onen aurretik: San Martin'goa lenengoa ta Balda'ko Amarena bigarrenkoa. (Santa Maria de Balda).

SAN MARTIN'goa, San Martin muñotxoan zegoan: gaur erriko ordularia daukagun muñotxo ortan bertan...

BALDA'ko AMARENA berriz, gaur kanposantua daukagun tokian: toki oni esaten bait-zitzaion leen MIRANDA DE IRAURGUI...

Su batek erre zuan San Martjnigo eliza au 1.318-garren urte-inguruan... Eta naparrerria (viruela) agertu zanean gaixotegi biurtu zituzten eliza ortatik gelditzen ziran ormazar aiek...

Ni Azkoiti'ra etorri nintzanean, 1943 gn. urtean alegia gaixotegi zan artean San Martin: biriketako gaitzak jotakoen gaixotegi...

Bizi-toki degu gaur San Martin. Eta bizi-toki ortantxe, daukagu, erabat aazturik, eliza zaar onek utzi zigun oroigarri bakarra: erdi-mendeko San Martin'en irudia, alegia.

Gaur kanposantua daukagun toki ortan, ba-zan, antziña, "templarioena" izandako eliza bat, eta eliza au artu zuten azkoitiarrak, gero, beren bigarren parroki bezela.

Balda'ko Jaunaren lurretan zegoalako-edo eliza au, Balda'ko Amaren ize-na eman zioten, eta Balda'ko Jauna izan zan bati, eliza onen nagusia...

Iru oroigarri eder utzi zizkigun bigarren eliza onek: sarrerako atea, bi aldare, ta bi aldare oietako irudiak... eta ipu-j-antzeko ixtorjo triste bat.

Zutik eta berri-berrja dago oraindik kanposatuan eliza onen sarrera-atea. Ta ur-bedinkatu-ontzi ederra du bere eskui-aldean.

Ez du ate onek, beste romanjko-ate askok izan oi dituzten apaingarririk. Ez da, ba, polit-polit oietakoa... Ederra da ordea, ta romaniko oso-osoa. "Gizona" dala au, esango nuke nik, eta "emaztekiak", beste ajek.

Eta kanposantu bertako kapillatxoan daukagu, baita-ere, eliza onek utzi zizkigun bi aldareak, eta aldare auetako irudiak.

Irudi auetako bat, Balda'ko Amaren irudia da. "Antiguako Ama" esan oi diogu gaur, irudi oni...

Beste bi irudjak, Andre Maria'rena bata, ta Joan Ebanjelaria'rena bestea, bere etxera jaso zituan orduko Erretore Jaunak, eta San Joan Bataiatzallea'ren erretabloko goi-goinean daude gaur kokatuak... Berrugete-estilokoak dira biak.

Gurutz bat bear zuten irudi auek ean-bien artean, eta Manuel Lekuona Jau-nak dionez: ez ote da Urrategi'ko gurutza, irudi bi-auen erdian bear zuan gurutz ori...?

Eta eldu daiogun orain, Balda'ko eliza onek, irugarren oroigarri utzi zigun ixtorio triste orrei... Nork ez du, Azkoitin, ixtorio au ezagutzen, eta nork ez du, azkoiti'n, ixtorio au sinisten...?

Balda'ko Jaun arroak, Balda'ko Amaren elizan zuan jabetasuna ta ortik zitan irabaziak galdu-nai ez zitualako-edo, ez zuan, inondik-inora, parrokiak aldatzerik nai...

ANTES BALDA QUE AZKOITIA...!

Alperrikakoak izan ziran eman zizkioten arrazoi guztiak... Ez zegoan ura bere-artatik, aldatuko zuan ez gizonik eta ez apaizik ere...

ANTES BALDA QUE AZCOITIA...!

Baiñan eldu zan aldaketa ori egiteko eguna: JAUNA eliz-berrira eramateko eguna, alegia...

Lerro bitan zetozen gizona guztiak goitik-beera...

Eta lerro bi oien erdian, apaiza "JAUNA"-kin.

Balda'ko etxe-aurretik igaro bear zuten nai-ta-nai ez.

Begira-begira zegoan Balda'ko Jauna leio-zirrikatu batetik...! Izkillu-aundi bat zeukan esku-artean, urduri...! Ez zuan tirorik galdu-nai...!

Eta apaiza tirora jarri zitzaionean...

ANTES BALDA QUE AZCOITIA.

deadar aundi bat egin, eta sutu zuan izkillua,...!

!!otzik erori zan JAUNA-kin zetorren apaiza...!!!

Ikus dezagun orain gure gaurko ELIZ-NAGUSI EDERRA... Gipuzkoa'ko elizarik eder eta aundienetako bat degu gure au... Baiñan ez dezu bertan, estilo-berezi nabarmenik ikusiko,...

Bi gizaldi igaro ziran-ia, eliza au egiten, eta bi gizaldi urte asko dira, estibetan ere aldaketarik ez izateko...! eta auxe izan dezakezu, eliza ontan, estilo berezinabarmen bat ez-izatearren zergatia: ja bi gizaldietako elizgintza...!

Eliza au eraikiteko baimena, II-garren Julio Aita Santuak eman zuan. Eta bi bulda bialti zitan ortarako, 1509-garren urteko Urrillaren 17-an bata, ta 1510-garren urteko Martxoaren 15-an bestea...

Iru izan ziran bertako arkitektoak: Juan de Arteaga, Pedro de Lizaranzu ta Pedro de Alcega.

Eta naiz-eta artean eliza bukatzeke egon, 1553-garren urtean ospatu ziran eliza onen eraiki-jaiak...!

25 urte geroago, 1578-garren urtean erori egin zan eraikitako-elizaren zati bat. Eta elizgintzan ariko ziran gizaldi bat geroago ere.

Gotikoaren-azkenean eta renazimenteren-asieran amestua da eliza au. Ta garaierako elizak ba'dute bere estilo berezi bat: Gipuzkoa'ko gotikoa "esan ote zaion estilo bat...". Estilo ontakoa bear zuan, berez, eliza onek ere, baiñan leen esan degun arroazogaitik ez du eliza onek estilo ori oso-osorik beintzat... Ala ere, gotikoaren azken-aldikoa da atzeko atea, naiz-eta XVIII-garren gizaldiko-barrokoa izan sarrera nagusia ta bere-alboko arkupea.

Aldare-nagusiko ERRETABLO au, ez da eliza onen lenengo erretabloa. Lenengo erretablo ura galdua dago, zoritxarrez, betirako.

XVII-garren gizaldi-azken-aldekoko da gaurko au, ta XX-garren gizaldi-asieran erabat berritua gainera. 1906-garren urtean su batek erre bait-zuan erretablo au, ta bertako jirudirik-geienak ondatu...

Irudi bat gelditu zan suak ondatu-gabe: Andre Maria'ren irudia: gaur erretablo goien-goienean ikusten degun Andre Maria'ren irudi eder ori.

Barrokoa da erretablo au, ta barrokoak dira, baita-ere, bere alboetako bi aldeak ere...

Aldare auetako bat, Kristo'rena alegia, XVI-garren gizaldikoa da, ta oso-osoa

ederra da bertako gurutziltzatuaren irudia... Ba'dira, gurutz ontan, Antxieta'ren eskua ikusten dutenak ere...

JOAN BATAIATZALLEA'rena da, eliz ontako beste aldare eder bat. Plate-reskoa. Geigi ikutua bear ba-da, ta pixka-bat ondatua orregaitik. Naiz-eta, gaur, (1993) erabat berritua ta edertua egon...

Eta erdi-erdian duan San Joan'en irudia, oso-ona da, ta Siloe'en irudien-antzekoa.

Auxe izango da, ziurki, eliza ontako aldarerik zaarrena...

Ba'ditu beste iru irudi eder ere: Asis'ko Franzizko'rena, San Pedro'rena ta Loiola'ko San Inazio' rana...

Eliza gutxietan ikusiko dituzu, emengo-alboetako, bi atepak bezein ederrak.

XVIII-garren gizaldikoak dira. Eta eliz-barrutik begira bear djezu, ate-auen eder-osoa ikusi nai ba'dezu beintzat. Ba'da ate auetan lan-eder asko...!

Eta ate auek bezein ederra dezu, korura-igotzeko arrizko maillaldi-kiribilla ere... Polita benetan...! Eta baita korua bera ere...!

Aipamen-berezi bat merezi du ORGANUA'k, ordea...

Baiñan gai oni buruz zear-mearko bat egiten utzi bear didazu...

Azkoitiarrak, berez, ez dira aberatsak izan bein-ere. Eta ala ere, esku-zabala izan dira beti eliz-gauzaetarako batez-ere.

Gauzarik-onenak nai izan dituzte beti beren eliz-nagusian: elizkizunik ederrrenak, eliz-jantzirik onenak, elizgauzarik ederrenak eta abar... Eta ez dute, bein-ere, onik-izan, gauzarik onenaran-jabe izan ez d'iran arteraño. Ikusi, bes-tela, organuakin nola jokatu izan zuten...

1556-garren urtean, eliza bukatu baño askoz-lenago, ba'zuten azkoitiar auek beren lenego organua: Balda'ko elizatik ekarria, bearba-da...

Baiñan laister egin zitzairen organu obearengo-baten gogoia. Eta Orduña'n bizi zan Vicente Alaman'i enkargatu zioten bigarren organu au... 1581-garren urteko, San Migel-egunerako, elizan bear zuan, eta lanean gaiñera, organu onek...

Laister sortu zan, ordea, ots-aundiko beste organu-egille bat. Rioja'ko Nabarrete erriko semea zan, eta Jacinto del Rio zuan bere izena organu-egille onek... Eta 1648-garren urtean, ba'zuten azkoitiarrak onek egindako bere iru-garren organua... 176 urte iraungo zituan organu onek Azkoiti'ko elizan...

Beste organu berri bat zuten 1824-garren urtean: laugarrena au, ta Juan Monturne'k egiña bera...

Ez zan organu au, azkoitiarren gogokoa izan, eta 21 urte geroago, 1845-garren urtean alegia, ba'zuten azkoitiarrak beste organu berri bat: bostgarrena au, ta Azpeitiko Miguel de Amezua, organu-egilleak egiña...

Ederra zan organu au, baiñan...

Garai artan, karlistak zirala-ta, erbestetuak izan ziran, Frantzira, Aldalur anaiak...

Musikalariak ziran anai auek, eta Frantzi'ko musikalari ospatsuenekin egin ziran lagun. Eta Aristides Cavaille-Coll izan zuten lagun oietako bat... Onek egiten zituan organuekin, txoraturik noski, ez zuten onen organu oietako bat Azkoiti'ra ekarri-arteraño pakerin izan...

Eta 1898-garren urteko Otsailla'ren 10-ean egin ziran azkoitiarrak gaurko organu-eder onen jabe.

Seigarren organua dezu au, bada, ta Aristides Cavaille-Coll'ek egin zuan azkeneko organua gaiñera...

Eta organu onekin ase ziran, noski, azkoitiarren ederregoaren gogoak...
Ba'dira, galtzerik merezi ez duten, orduko bertso batzuek.

Bedelkatua zure sorrera,
zorioneko eguna
gure organu berri ederra
pozik aditzen deguna...

Miragarritzko gertaera bat
izan-ala pozgarria,
ikusten degu argiro zugar
o Azkoiti'ko erria...
Lendabiziko gaur jo, ta aditzen
dezun organu berria,
da zure fede eta birtute
gutziz aundien neurria...

Bedeinkatua...

Don Aristides Cavalle-Coll jaun,
bere lanian bikaña.
Organu au da gizon ospetsu
onek Paris'en egiña...
Onenbestekin esana dago
gauza oso jakaña;
izango dala Catedral aundi
batian jartzeko diña...

Bedeinkatua...

Teklau, pedal ta erregistroak
izanik osoak, danak
eslaitu dira konsultaturik
maixurik onen diranak.
Zenbat meritu duan organu
onetan egin dan lanak,
bakarrik esan lezake, ondo
ezagutzen duanak...

Bedeinkatua...

Eliz-fabrika eta errjak
lagun egiñaz alkarri,
jendearekin batean dute
bear dan dirua jarri.
Danon artian, bada, dezute
organu ori ekarri,
izango dana Eliza eta
Erriaren onragarri.

Bedeinkatua...

Teklauak iru eskuentzako,
pedalak berriz oñetan,
erregistroak berrogeiraño
djra organu onetan:
tronpetak ezin ederragoak,
kanpo, barru ta goietan,
zeruko boza aditzen dala
dirudi soñu oietan...

Bedeinkatua...

Azkojtarrak gaurtik beti
b;iziko zerate pozak,
adituzian organu ortan
gizon ta aingeruen bozak:
baca ain dira atsegin eta
ederrak beraren otsak,
nun txit gozoro igoko diran
zerura zuen biotzak...

Bedeikatua zure sorrara,
zorioneko eguna,
gure organu berri ederra
pozjk adjtzen deguna...

1703-garren urtean jaso zuten eliza onen lenenego KANPATORREA, ta tximista batek bota zuan kanpatorre au 1741-garren urtean.

Laister jaso zuten berria, baiñan berri onek ere, leengo zaarraren azkenberdiña izan zuan: tximista batek bota zuan au ere, 1943-garren urtean...

1947-garren urtekoa dezu, bada, oraingo eder-eder au ta Azkoiti'ko Raimundo Alberdi, arkitekto jaunak jaso. Ta herreriano-estilokoa dezu kanpatorre au.

Ikus dezagun orain SAKRISTIE.

Ez dezu bertan gauza berezirik arkituko, baiñan ederra da oso.

Iturri ederra du, ta ederragoa izango zan, noskj, iturri au, ura gaiñezka erortzen zitaionean...

Irureta'renak dituzu ormaetako margozkiak. Azkoiti'ko margolarj bat izan zenduan Irureta au. "Pattaña" goitz-izenez ezagunagoa...

Giza-irudiak dituzu leio-alboetako margozki oiek: Josefa amarena bata, Fr. Ignacio de la Concepcion Vjllarreal'ena bestea, Excmo. Señor Don Domingo de Idiaquez'ena irugarrena, eta Don Francisco de Zarate'na laugarrena...

Eta onela dio giz-jrudj bakoitzeko idazkiak:

La V. Madre Josefa del Smo. Sacramento, Religiosa Recoleta de Santa Brigida e hija de la villa de Azcojtia, murió en de Santa Cruz de la misma en 23 de Febrero de 1721.

Fr. Ignacio de la Concepcion Villarreal, Definidor General de los Trinitarios, Procurador General en España, etc., etc... Nació en Azcoitia el año 1672 y murió en Madrid en 1733.

Excmo. Señor Don Domingo de Idjaguez, Arzobispo de Brindis en el Reino de Nápoles... Natural de Azcoitia. Murió en 1525.



D. Francisco de Zarate, Auditor de la Rota Romana. Electo Obispo de Segovia y Cuenca, y arzobispo de Santiago de Chile... Renunció a todo esto por humildad. Compiló, siendo auditor, varias decisiones de la Curia que quedaron manuscritas. Natural de Azcoitia...

Eta oarpen bat egiteko bidea ematen dit, sakristiko margozkiak dirala-ta, orañtxe esan dizudan guzti-onek: eliza berriztatu zan ezkeroztik (1992) ez dirala sakristlan margozkj auek ikusten. Beste nunbaitean daude, noski, gorde-rik.

Izan ere, 1987-garren urtean, Jenaro Lekuona Azkoiti'ko erretore jaunari esker, eta Azkoiti'ko erri-xumeak eman zuan diru-laguntza aundjari esker, eliz-berritze lanak asi ziran kanpantorrean... Eta 1992-garren urteko Martxoan bukatu ziran lan auek... Eta leen organuaz esan dizudana orixe-bera esan-zabalak bere eliz-nagusiarekin. Eta eliz ori, beste guztjak baño ederragoa ikustearren, edozer gauza egiteko prest-daudela beti. Eta eman duten milloi-askotako diru-laguntzari esker, arro daudela gaur, beren Eliz-Nagusi orrek etxekoen eta kanpokoen arridurarik aundjena sortzen dualako... Izan ere, Euskalerrri'ko elizarik ederrenetakoa baldin ba'zán leen ere, zer esango dizut orain...

Anastasio Albisu Ayerdi






Ara emen erri euskeraz agertutako azken lliburuetako lau. J.L. Beobide'ren **Igande eta jaietako Homiliak**.

Iñaki Zubiri'ren **PATXI (Umezurtz baten gora-beerak)**.

Augustin Zubikarai'ren **ONDARROA- Kondaira 1900 arte.** eta **ZEREĞIÑAK 1.994.**

Euskera jatorra irakurteko aukera.

Liburutegietan salgai.



BIOZKADAK

BASERRIA

Zure gerizak Euzko-mendiak
Apaintzen ditu, pozkarri;
Zure zimendu, Erri-zentzuna,
Izan bearrez egarri.
Zauritu dira zure errajak
Etorkizunaz urduri
Zure babesa galtzen badogu
Umezurtz dogu Aberrj.

Gure oituren seaska zintzo,
Euskerearen oiñarri.
Kea zerurantz daritzu artez
otoitz bigun eta guri
Gabon aldian Salbatzalleaz
Grazia dozu opari
Zorionezko agur beroak
Izan egizuz ugari.

OIÑORDEKOTZA

Oroitzapenen bidezidorrak
Zabaldietan lausotzen,
Ametsen ego igezkorretan
Gozatsu doaz urruntzen.
Zentzumenaren lillura gizen
Gure gogoak zauritzen
Gabon aroan kadentasanak
Guztiok gaitu ikutzen.

Zorionezko agur zintzoak:
Opari eder... beroa...
Ator etxera gurasoekaz
Errian dok ba geroa.
Asabakandik artu dokana
Oiñordekotza naroa
I az gurean etorkizuna
Poz eta gogo oparoa.

Gure ioranak, gogo-landetan
Astiro doaz urruntzen.
Zoro alenak! Ez ete gara
Zer datorkigun oartzen?
Aienatzeko zori gaiztoa
Ez ete dogu nabaizten?
Urrunduz doazan oroitzapenak
Alegin daigun sustraitzen.

GABONAK

Zer ete dauka Gabon aroak?
Zirkin dagisku barruan.
Urte mugara urreratzean
Samurtasuna munduan.
Oroitzapenak gozo iatorkuz,
Urte-muga amillean,
Geure biotzak ingurukoei
Zabal-zabalik jadean.

Bizi bearrak ittoten gaitu
Iraduz urte guztian;
Geugan doguna billa-bearrez
Egon-eziña barruan.
Gabon ba-lira egun guztiak
Au bai zoruna gurean!
Poztasunezko bake giroa
Duintasunagaz bidean.

ITXAROPENA

Ude mugetan, Gabon aroan
Zorion eta agurrak,
Guztientzako biotzak zabal
opari eder, samurrak.
Oroitzapenen oiartzunezko
Amets gozo ta pozkorrak
Izan bekiguz aldi orotan
lagun on eraginkorrak.

Lillura-mundu orretan baiña
ez gagoz beti ilkorrak;
Gizarte ontan ugari doguz
Arazo eta makurrak.
Iraupen eta itxaropena
Bide egoki ta zuurrak
Onoimena da zintzotasuna
Bastertu beti guzurrak.

Langabezia, ekonomja
Bakerik eza ta lorrak
Ez gaiezala iñoz kikildu
Izanagaitik gogorak
Euzkadi leendik ikasia da
Ugaltzen bere indarrak
Aitor'en seme, adiskide on
izan gaitzean jatorrak.

